



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko apirilaren 14a

55. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- 10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-23/LEY-00002. Foru Legea, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- 10-23/LEY-00005. Foru Legea, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427 euroko kreditu-gehi-garri bat ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).
- 10-23/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (26. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Legea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Legea**

Hitzaurrea.

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Diskriminazioaren kontzeptua.
3. artikulua. Aplikazio-eremua.
4. artikulua. Ekintza positiboak.
5. artikulua. Definizioak.

I. titulua. Prebentzio eta babes neurriak

I. kapitulua. Arrazakeria eta xenofobia prebentziko mekanismoak.

6. artikulua. Diskriminaziorik ezeko printzipioa txertatzea politika publikoetan.
7. artikulua. Kulturen arteko bizikidetza sustatzea.
8. artikulua. Aitortza eta babes instituzionala.
9. artikulua. Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planak.
10. artikulua. Prestakuntza.
11. artikulua. Digitalizazioa eta adimen artifiziala (AA).

12. artikulua. Kontratazioa eta dirulaguntza publikoak.

13. artikulua. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua.

II. kapitulua. Arrazakeria prebentziko eta hari aurre egiteko politika publikoak.

14. artikulua. Hezkuntzaren arloko neurriak.

15. artikulua. Lanaren eta enpleguaren arloko neurriak.

16. artikulua. Osasunaren arloko neurriak.

17. artikulua. Etxebizitzaren arloko neurriak.

18. artikulua. Gizarte zerbitzuen arloko neurriak.

19. artikulua. Segurtasunaren, babes zibilaren eta larrialdien arloko neurriak.

20. artikulua. Komunikazioaren eta sare sozialen arloko neurriak.

21. artikulua. Kirolaren, aisiaren eta denbora librearen arloko neurriak.

22. artikulua. Kulturaren arloko neurriak.

III. kapitulua. Arrazakeriatik babesteko mekanismoak.

23. artikulua. Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko arreta.

24. artikulua. Diskriminazioaren aurkako klausula eta eskubideen defentsa.

25. artikulua. Froga-zamaren inguruko erregelak.

26. artikulua. Errepresalien aurkako babesa.

27. artikulua. Eragile juridikoentzako prestakuntza.

28. artikulua. Hirugarren sektoreko entitateei laguntzea eta neurri espezifikoak.

29. artikulua. Mentoretza-programak elkartean.

30. artikulua. Elkarteen aitortza eta parte-hartzea.

II. titulua. Erreparazioa.

31. artikulua. Justizia erreparatiboa.

32. artikulua. Neurri espezifikoak.

33. artikulua. Auzi estrategikoak.

III. titulua. Zehapen-araubidea.

34. artikulua. Zehapen-araubidea.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapenerako gaitzuntza.

Azken xedapenetan bigarrena. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

## HITZAURREA

### I.

Azken urteetan zabaltzen joan dira arrazagatiko diskriminazioaren kontrako borroka eta arraza edo etniagatiko diskriminazioaren debekuekin lotutako tresna juridikoen garapena, bai nazioarte osoan bai Europan. Esparru orokor gisa hartuta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuen artean, 16.aren helburua da “Garapen jasangarrirako, gizarte baketsuak eta eskusiboki sustatzea, justiarako aukera ematea guztientzat eta maila guztietan eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak diren instituzioak eraikitzea”.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onetsitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritako printzipio gisa jasota daude giza duintasunarekiko errespetua eta berdintasuna eta diskriminazio eza. Halatan, arrazagatiko diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1965) erreferentziako esparru espezifikoak da diskriminazio mota horretarako.

Giza eskubideen nazioarteko esparruan berdintasuna substantiboa denez, estatuak beharturik daude arrazagatiko diskriminazioaren kontra borrokatzeko politika espezifikoak eta neurri eraginkorrak hartzea, Konbentzioaren interpretazioa errealitateara egokitzen joateko.

Europako Kontseiluaren esparruan, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa jasota dago Erroman 1950eko azaroaren 4an onetsitako Giza Eskubideen eta Oinarritako Askatasunen

babeserako Hitzarmenaren 14. artikuluan. Era berean, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren kontrako Europako Batzordeak –berme organismoa baita– 16 gomendio plazaratu ditu foru lege hau egiteko funtsezko iturburu izan diren gai espezifiko batzuei buruz (antigitanismoa, enplegua, polizia, eta abar).

Horrez gain, pentsatzekoa denez, Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikuluan ere aipatzen da. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan. Xedapen hori, Europar Batasuneko Oinarritako Eskubideen Gutunaren 21. artikuluekin batera, Europako sorrerako zuzenbidearen oinarri juridikoa da, eta estatu bakoitzak Europar Batasunean onartua denean bete beharreko ondare europarraren parte da. Europako zuzenbide eratorria Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzentarauan mamitzen da, bertan arautzen baita pertsonen tratatu berdintasunaren printzipioaren aplikazioa, haien arraza- edo etnia-jatorria gorabehera.

Europar Batasunaren Arrazakeriaren kontrako 2020tik 2025era bitarteko Ekintza Planak aitortzen du egiturazko arrazakeria izan badela, eta estatuei dei egiten die hala dela aitortzeko eta politika proaktibo bidez gaiari heltzeko. Horrez gain, konfiantza hartu beharra dago Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzearen aldeko EBren Esparru Estrategikoa, 2020tik 2030era bitartekoa, zeinaren bidez Europar Batasuneko estatuak prematzen baitira proaktiboagoak izan daitezkeen arrazakeriaren kontrako borrokan, oro har, eta antigitanismoaren kontrakoan, bereziki.

Europako Parlamentuak ere adierazi du –Europar Batasunean giza eskubideen egoera azaltzen duen 2022ko azaroaren 10eko Ebazpenean– diskriminazio, gorroto eta intolerantzia mota ororen kontrako borroka areagotu beharra dagoela Europar Batasunean oinarritako eskubideen egoerari buruzko 2020ko eta 2021eko txostenean oinarrituta; ebazpen horretan Batasuna eta Batasuneko estatuak bultzatzen ditu diskriminazio askotarikoaren arazoa sar dezaten berdintasunaren arloko beren politiketan.

Europako Parlamentuaren 2019ko martxoaren 26ko Ebazpenak, jatorri afrikarreko pertsonen Europar Batasuneko estatuak eta instituzioei eskatzen die aitortzea jatorri afrikarreko pertsonen arrazakeria, diskriminazioa eta xenofobia pairatzen dutela bereziki, eta, oro har, berdintasun falta giza eskubideak eta oinarritako eskubideak baliatzeko, egiturazko arrazakeriaren pareko egoera alegia,

eta pertsona horiek eskubidea dutela berdintasun falta horien aurrean babesa jasotzeko norbanako gisa nahiz talde gisa, esate baterako neurri positiboak ezarriz haien eskubideak sustatzeko eta osotara eta berdintasunez baliatzeko.

Azkenik, Europako Parlamentuaren 2022ko martxoaren 8ko Ebazpenak, arrazakeriaren kontrako borrokan kulturak, hezkuntzak, hedabideek eta kirolak betetzen duten zereginari buruzkoak, azpimarratzen du Europako gizarteetan gero eta aniztasun kultural handiagoa dagoela eta gero eta gehiago direla atzerrian jaiotakoak eta haien ondorengoak, eta kultura, hezkuntza eta kirola funtsezkoak direla gizarte ireki bat, mundu guztia adeitasunez hartzen duena, sustatzeko. Horrez gainera, garrantzitsutzat jotzen du aitortzea pertsona horiek historian zehar Europako kulturari eta ezagutzari egindako ekarpena eta utzitako legatua, eta aitortzen du arrazakeria oso sustraitua dagoela gizartearen eta atxikirik dagoela bere sustrai kulturelei, herentziari eta arau sozialei.

Estatuan, 1978ko Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunerako eta diskriminazio ezerako eskubidea aldarrikatzen du, eta horretarako arrazoi bereziki arbuigarrien artean aipatzen ditu jaiotekua, arraza, sexua, erlijioa edo iritzia; hartara, beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialek eragindako diskriminazioa debekatzen du.

Neurri fiskalei, administratiboari eta arlo sozialekoei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen 35. artikulua bidez, Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentarauaren 5. artikulua transposizioa egin zen. Zuzentarau hori, hain zuzen ere, pertsonen tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa da, arraza- edo etnia-jatorria zein den ere. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan esparruan, Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legea nabarmendu beharra dago.

Azkenik, Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralak aitortzen du pertsona orok eskubidea duela tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko, nazionalitateari begiratu gabe, adingabeak nahiz adinez nagusiak izan, legezko egoiliarra izan ala ez, eta adierazten du inork ezin duela diskriminaziorik jasan honakoetan oinarrituta: jaioterria, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo -identitatea, genero-adierazpena, gaixotasuna edo osasun-egoera, egoera serologikoa eta/edo patologiak eta nahasmenduak izateko joera genetikoa, hizkuntza, egoera sozioe-

konomikoa, edo beste edozein baldintza edo ezaugarri pertsonal edo sozial”.

Halere, arau-esparru hori estatuko eta autonomia erkidegoko araudiarekin osatu behar da, halaxe ezartzen baitu Arrazakeriaren eta intolerantziaren kontrako Europako Batzordearen 7. gomendioak, arrazakeriari eta arrazagatiko diskriminazioari aurka egiteko legegintzaren beharri buruzkoak, bai eta Europar Batasunaren Arrazakeriaren kontrako 2020tik 2025era bitarteko Ekintza Planak ere.

Horrenbestez, foru lege honen helburua da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.18 artikuluan garapen komunitarioaren eta berdintasun politiken arloan aitortzen den eskumen osoa baliatuz, etnia- edo arrazajatorrian oinarritutako diskriminazioaren prebentzioa, babesa eta erreparazioa sustatuko duten politika publikoak garatzea Europako araudiaren babesean, eta Nafarroara ekartzea giza eskubideen arloko babes estandar zorrotzenak, garapenerako ezinbesteko bidetzat harturik kohesioa bilatzen duen gizarte aurreratu bati hala baita gogokio.

Gure erkidegoan, Nafarroako Ijitoen Arreta Integralerako lehendabiziko Planaren ondotik (2011-2014) Ijitoen Garapenerako Estrategia (2019-2022) heldu zen, aitzindaria izan zena antigitanismoaren aurkako borroka helburu estrategikoaren artean jasotzeko dagokionez. Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzearen aldeko Estrategia Nazionalarekin (2021-2030) koordinatuta, honako arlo hauek jorratzen ari dira nagusiki: biktimentzako arreta, prestakuntza foru administrazioaren maila guztietan, emakumezko ijitoek jasaten duten diskriminazio interseksionala, eta datuen beharra egoera modu egokian aztertu eta ijitoen kontrako arrazakeriaren eta haren ondorioen kontrako proiektu eta politika publikoak diseinatuzko.

Nolanahi ere, antigitanismoaz eta tratu berdintasunaren aipamen orokorreaz harago joan beharra dago arrazakeriaren eta xenofobiaren funtsari benetan heltzeko, arazo horiek beren izaera propioa dutelako, gizartearen errotua. Horretarako, Foru Komunitatea tresna batzuk sortzen joan da, esate baterako Nafarroako Arrazakeriaren kontra Borrokatzeko Plana, Nafarroako Gobernuak 2022ko martxoaren 16an onetsia, zeinean detektatu baitzen, prestakuntza lanetan betetzeko parte-hartze prozesuari esker, gure erkidegoan dauden migratzaileek arrazakeria eta xenofobia egoerak identifikatzen dituztela nafar gizartearen, eta egoera horiekin bizi behar dutela egunero.

Toki publikoetan maiz sortzen dira arbuio egoerak, batez ere kalean, garraio publikoan edo kontsumo tokietan espaziorako lehia dagoela sumatzen denean. Populazioaren zati batek oztopatu edo arbuiatzen du migratzaileak “beren tokitik ateratzea”. Mikroarrazakeria eta arrazakeria lausotua eguneroko bizimoduan gertatzen dira, garraio publikoa erabiltzean, merkataritzan, gune publikoetan, kirolean, aisialdian.

Egoera hori aldatu behar da politika aktibo eta espezifikoeekin, eta espero dugu foru lege hau horretarako ekarpen erabakigarria izatea, errealitatea eraldatzeko.

## II.

Arrazakeriaren kontrako legeak egiteko, ulertu behar da arrazakeria zer den eta zer mailatan eta nola agertzen den; ulertu arrazakeria fenomeno konplexua eta aldakorra dela, zeinean hiru alderdik jarduten baitute: banakoa, soziala eta instituzionala.

Arrazakeriak botere egitura baten gainean du oinarria, eta horrek ematen die esanahia aurreiritzi sozialei; horrexegatik, instituzionala eta egiturazkoa da, presente dagoelako bizitzaren, kulturaren, gizartean ezartzen diren balio eta harreman guztietan. Eskubideak baliatzea eta ondasun eta zerbitzuak eskuratzea galarazten duten lege edo erregelamenduzko xedapenen bitartez agertzen da. Horrexegatik, erantzuna instituzionala izan behar da beti.

Arrazakeria dagoela aitortzeko, arraza izan behar dugu hizpide, hots, konstruktua sozial bat, zeinak esklabotzaren, Atlantikoan zeharreko giza salerosketaren eta kolonialismoaren bitartez hainbat egitura eta jardunbide ezartzea eragin baitu, gaur egun arte iraun duten desberdintasun sozial eta ekonomikoak ekarri dituztenak. Arrazakeriak pertsonen arteko dimentsioan jarduten du eta eguneroko egintza indibidual edo/eta kolektiboetan agertzen da. Portaera horiek iruditeria sozialean ugari diren aurreiritzi eta estereotipo historiko batzuekin elikatzen dira, eta horiek, azkenean, legitimatzen dituzte beste talde sozial batzuei buruzko sinesmenak, arrazan oinarritutakoak. Ikuspegi horretatik, Nafarroako Foru Komunitateak ukatzen du giza arrazarik izatea, eta foru lege honetan “arraza-jatorria” terminoa erabiltzen da nazioarteko konbentzioetan erabiltzen den terminologia bera erabiltzeagatik eta oraindik deseraiki ez den eta, izatez, diskriminazioa sortzen duen faktore soziologiko hori badela aitortzeagatik.

Azken urte hauetan, arrazakeriaren kontrako antolaketa soziala gero eta handiagoa denez,

pertsona eta talde arrazializatuak hitz egiten da arrazializatzea debetearen erdigunera ekartzeko, honela ulertuta: kategorizazio prozesu bat, talde sozialen arteko harreman desorekatuak eragindakoa, eta “arraza” delako konstruktua soziopolitikoak finkatua, zeina eratzen baita gizakiak identifikatu, bereizi eta desberdintzeko elementu batzuen bidez, ezaugarri fenotipiko, kultural edo/eta erlijio-soekin lotutako irizpideetan oinarrituta. Gaur egun, arrazakeriaren aurkako elkartearen sareak esanahi berria eman dionez kontzeptuari, “pertsona arrazializatuak” erabiltzen da arrazakeriaren balizko biktima diren pertsona guztiak izendatzeko.

Hizkuntzak errealitateak eraikitzen ditu eta ekintzarako esparru bat ematen die; horrexegatik, garrantzitsua da aipatzea arrazakeria eta xenofobia ez direla berdinak. Xenofobiak erreferentzia egiten die atzeritarrekiko mesfidantza, gorroto eta etsaitasuneko jarrera, jokabide eta sentimenduei. Desberdintasuna da arrazakeria dela esateko, tartean agertu behar direla arraza adierazleak, eta xenofobiaren erreferentzia, aldiz, atzeritartasuna da. Foru lege honetan erabaki da tituluan arrazakeria eta xenofobia, biak, mantentzea, zeren, xenofobia arrazakeria modu bat bada ere, gizartean duen garrantzia dela-eta komeni baita haren aipamen espezifikoa egitea.

## III.

Foru lege honetan, arrazakeriaren kontrako ikuspegiaren helburu nagusietako bat da sustatzea pertsona arrazializatuak sar daitezzen bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta instituzionalean, eta Nafarroako gizarte osoan presentzia eta ordezkartza izan dezaten laguntzea.

Horretarako tresnetako bat ekintza positiboaren erabilera da, praktikan berdintasun erabatekoa bermatzeko bitarteko gisa. Ekintza positiboari esker neurri espezifikoak har daitezke etnia- edo arraza-jatorriagatik pertsona batzuek dituzten egiturazko desabantailen prebentziorako eta kontentsaziorako. Politika publiko horrekin aitortzen da, batetik, pertsona askok beren etnia- edo arraza-jatorria dela-eta eremu eta eskubide askotara iristeko egin beharreko ahalegin gehigarria, haurtzarotik hasita egiturazko arrazakeriak ezartzen dituen oztopoak gainditzeko, eta, bestetik, aniztasunak gizarte osoarentzat sortzen duen eragin positiboa.

Azkenik, foru lege honetan, arrazakeriaren kontrako ikuspegiak berekin dakar aitortzea ehun sozialaren prozesuak eta estrategia kolektiboak funtsezko tresna bat direla arrazakeriaren kontrako borrokan; eta arrazakeriaren kontrako borrokan esperientzia duten elkarte edo entitateak legitima-

tuta daudela solaskide nagusi gisa, haiei espazioa emateko eta entzuteko. Horregatik foru lege honen helburuetako bat da arrazakeriaren kontra kolektiboek sentitzea legea beren prozesuaren emaitza dela, eta izan dadin arrazakeriaren kontra borrokatzeko prebentzio tresna bat, legearen beraren eta haren analisiak sortzen dituen gogoei zabalkundearen bidez. Gogoeta kolektibo horiek, aldi berean, foru lege hau berrikusi eta hobetzeko tresnarik onena izanen dira.

Giza eskubideen ikuspegia da foru lege honen artikulua guztien inspirazio iturri. Horrekin batera, arau honek genero ikuspegia ere barnean hartzen du, hau da, kontuan izaten du zer desberdintasun dagoen modu sistematikoan emakumeen eta gizonen artean, baldintzetan, egoeretan, beharretan eta asmoetan, arlo guztietako politika guztietan, haien plangintza, garapen eta ebaluazioari dagokienez. Analisi eta lanerako metodologia gisa, ikuspegi horrek ahalbidetzen du emakumeen eta gizonen desberdintasunak ikusgai jartzea eta beraz, langai izatea: aintzat hartzen ditu gizartean emakumeei eta gizonei ematen zaizkien eginkizunak eta zereginak eta horiei ematen zaien balioa.

Foru lege honek ikuspegi interseksionala ere bere egiten du. Europar Batasuneko Arrazakeriaren aurkako Ekintza Planak (2020-2025) ezartzen duenez, ikuspegi interseksional batek sakontzen du egiturazko arrazakeriaz dugun ezagutza eta erantzunak eraginkorrak izatea lortzen du. Ikuspegi horretan aztertzen da desberdintasun sozialen adierazle desberdinek nola elkar gurutzatzen duten eta gurutzaketa horiek nola laguntzen duten zapalkuntza, diskriminazio edo pribilegio agerpen bereziak sortzen. Diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago aldi berean elkartzeak diskriminazio espezifiko mota bat sortzen du, berezko ezaugarriak dituen zapalkuntza-modu bat alegia. Kontua ez da diskriminazio-arrazoiak metatzea, baizik eta haien arteko gurutzaketak sortzen duen diskriminazioa diskriminazio baturaz bestelakoa dela. Ikuspegi horrek eskatzen du testuinguru batean nagusitzen diren botere dinamikak eta desberdintasun sistemak aitortzea eta aztertzea, eta horiei aurre egiteko modu substantiboan eta intentzioarekin lan egitea.

Genero ikuspegia ikuspegi interseksionalarekin konbinatu behar da. Ildo horretan doa Arrazagatiko Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordeak dioena bere 25. gomendio orokorrean, generoarekin lotutako arrazagatiko diskriminazioez ari dela (2000).

Horrenbestez, arreta espezifiko ematen zaio matxismoaren eta arrazakeriaren arteko interseksioari, emakume arrazializatuak uzten baititu ego-

era bereziki zaurgarrian eta indarkeriaren menpe egoteko arrisku handiarekin.

#### IV.

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko foru legeak 34 artikulua ditu, lau titulutan banatuta, eta hiru azken xedapen.

Atariko tituluan aplikagarriak diren xedapen orokorrak jasotzen dira. Foru lege honen xedea ezartzen da, hau da, baldintzak sustatzea, berdintasunerako eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin, Nafarroako Foru Komunitatean, bizitzaren arlo eta etapa guztietan. Diskriminazioaren eta arrazakeriaren kontzeptuak eta tipologia zehazten dira, bai eta aplikazio eremua eta ekintza positiboa jasotzea ere.

I. tituluan prebentzio eta babesaren arloan aplikatu beharreko neurriak arautzen dira. Arrazakeriaren prebentziorako mekanismoak ezartzen ditu, hala nola aitortza instituzionala, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra borrokatzeko planak, administrazio publikoko langileen trebakuntza, gardentasuna adimen artifiziala delakoari dagokionez eta kontratazio eta dirulaguntza publikoei dagokiena. Horrez gain Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren sorrera ere jasotzen du, kontsulta eta parte-hartzerako organo gorena izan dadin Nafarroako Foru Komunitatean etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminazioaren arloan.

Era berean, hainbat arlotan arrazakeriari aurrea hartzeko eta haren kontra borrokatzeko politika publikoak arautzen ditu: hezkuntza, lana eta enplegua, osasuna, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna, babes zibila eta larrialdiak, komunikazioa eta sare sozialak, kirola, aisia eta denbora librekoa, eta kultura.

Bukatzeko, arrazakeriaren aurkako babes mekanismoak ezartzen ditu, esate baterako Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko Nafarroako Arreta Zerbitzua, errepresalien kontrako babesa, operadore juridikoentzako prestakuntza eta hirugarren sektoreko entitateentzako eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra lan egiten duten elkarreentzako laguntza, bereziki pertsona arrazializatuen edo gutxiengo etnikoentzako pertsonen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena dutenentzat.

II. tituluan aitortzari eta erreparazioari dagokion guztia xedatzen da, barne hartuta, esanahi eta ondorio bereziak dituelako, ijito herriaren aitortza eta pertsona beltz esklabizatuen Atlantikoan zeharreko salerosketak eragindako kaltea. Bukatzeko,

aurreikusten da abian jartzea auzi estrategikoak gizarte eraldatzeko potentzialtasuna duten garrantziko gaietan.

Azkenik, III. tituluaren bidez zehapen-araubidea gehitu zaio Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralari.

Errealitate konplexuetarako soluzio errazik ez dagoela aitortuta, foru lege honek justizia errestauratiboaren erabileraren alde egiten du, arrazakeriaren ondorioei dagokienez prebentzio eta erreparazio tresna egokia delakoan. Ikuspegi horretatik abiatuta, aitortzen da aurreiritziak gainditzeko eta eraldaketa sozialerako biderik indartsuena dela pertsonen arteko solas errestauratiboa, adierazpen zintzoa, entzute aktiboa eta enpatikoa eta akordio adostuen bidez soluzio amankomunetara iristeko gaitasuna.

Jardunbide errestauratibo komunitarioak judizializatu gabeko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzekoak ere, helburu dutenak konfiantzazko, errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan.

## ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eraginkorra izatea berdintasuneko eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidea, arrazoi hauetako edozein aitzakiatzat hartzen duen diskriminazio-mota oro desagerrarazita: lurralde edo nazio-jatorria eta xenofobia, arraza, jatorri etnikoa edo larruazalaren kolorea, eta edozein arrazakeria mota, antisemitismoa edo antigitanismoa, kasu, hizkuntza edo kultur identitatea, edo etnia- edo arraza-jatorriaren beste edozein ezaugarri, inguruabar edo adierazpide, egiazkoa nahiz egotzia, nazioarteko zuzenbideko tresnek aitortzen dituztenak.

Horretarako, politika publiko batzuk ezarriko dira, helburu izanen dutenak etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminazioaren aurrean prebentzioa, babesa eta erreparazioa sustatzea, arreta berezia emanez emakumeen eta gizonen berdintasunari eta sexu eta genero aniztasunaren errespetuari, bai eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta irisgarritasun unibertsalari ere. Aitortuko da ehun sozialaren prozesuak eta estrategia kolektiboak funtsezko tresna bat direla arra-

zakeriaren aurkako borrokan, eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako borrokan lan egiten duten elkarteak solaskide nagusi gisa legitimatuko dira.

### 2. artikulua. Diskriminazioaren kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, «tratu berdintasunaren printzipioa» etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminaziorik eza da. Mota hauek daude:

– Zuzeneko diskriminazioa: pertsona batek bizi duen egoera, jasotzen duen tratua okerragoa denean bere antzeko egoeran edo egoera parekagarrian dagoen beste pertsona batek jasotzen duena, jaso izan duena edo jasoko lukeena baina, etnia- edo arraza-jatorriagatik.

– Zeharkako diskriminazioa: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide, interpretazio edo jardunbide batek etnia- edo arraza-jatorri jakin bateko pertsonak desabantaila berezian jartzen dituen beste pertsona batzuen aldean, salbu eta xedapen, irizpide edo jardunbide hori objektiboki justifikadaiteke helburu legitimo batez, eta salbu eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak badira.

– Loturagatik diskriminazioa: pertsona batek edo talde batek desabantaila edo diskriminazioa jasaten duenean pertsona edo talde batekin duen loturagatik edo harremanagatik, bere etnia- edo arraza-jatorria dela-eta.

– Oker batengatik diskriminazioa: pertsona bat edo pertsona-talde bat bere etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua denean, hautemate oker baten ondorioz.

– Diskriminazio intersektionala: diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago aldi berean elkartzeak diskriminazio espezifikoa mota bat sortzen du, berezko ezaugarriak dituen zapalkuntza-modu bat alegia.

– Arraza-segregazioa: arraza-kategorietan oinarrituta pertsona taldeak marjinalizatzeko, baztertzeko eta diskriminatzeko prozesu instituzionalizatu; hainbat esparrutan eta hainbat modutan gerta daiteke: hezkuntzan, lan munduan, etxebizitzaren arloan, toki publikoetan eta ondasun eta zerbitzuak eskuratzean.

– Jazarpena: diskriminaziotzat hartzen da baldin eta nahi ez den portaera bada, pertsona baten arraza- edo etnia-jatorriarekin loturik, haren helburua edo ondorioa bada pertsonaren duintasunari erasotzea eta beldurrezko ingurune bat sortzea, edo etsaitasunezkoa, apalgarria, umiliagarria edota iraingarria.

– Diskriminatzeko agindua: diskriminaziotzat hartzen da pertsonak beren etnia edo arrazagatik zuzenean edo zeharka diskriminatzeko agindu edo jarraibide oro.

### 3. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru sektore publiko instituzionalari aplikatzen zaie, azken hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 2.1 artikuluan definitzen den moduan. Halaber aplikatuko zaie Nafarroan bizi diren, dauden edo jarduten duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuei ere, foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan jasota dauden baldintzetan eta irismenarekin.

### 4. artikulua. Ekintza positiboak.

Praktikan berdintasuna bermatze aldera, Nafarroako Gobernuak neurri espezifikoak hartuko ditu, prebenitzeko eta konpentsatzeko etnia- edo arraza-jatorriagatik pertsoneri modu estrukturalen eragiten dieten egiturazko desabantailak, batez ere diskriminazio askotarikoa eta interseksionala jasaten duten pertsonen kasuan.

### 5. artikulua. Definizioak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira honako hauek:

**Arraza:** konstruktua politiko eta sozial bat da, historikoki erabili izan dena pertsonak bereizteko, diskriminazioa eta berdintasun eza sortzen duten kategoria kultural, fenotipiko, erlijioso eta abarretan oinarrituta.

**Arrazializazioa:** kategorizazio-prozesu bat, gizarteko taldeen arteko desberdintasunezko harremanak sortutakoa, arraza izeneko gizarte-konstruktuan oinarrituta. Prozesu horrek oinarrian ditu gizakiak identifikatzeko, bereizteko eta desberdintzeko elementu batzuk, ezaugarri fenotipiko, kultural eta erlijiosoei lotutako irizpide zehatz batzuk kontuan hartuta.

**Arrazakeria:** talde batek beste bat mendeen hartzeko eta gutxiagotzeko sistema, desberdintasunen arrazializazioan oinarritzen dena eta dimentsio pertsonal eta kolektiboaren arabera taxutzen dena. Hainbat ideia, diskurtso eta jardunbideren bidez adierazten da: ikusezintasuna, estigmatizazioa, diskriminazioa, bazterkeria, esplotazioa, eraso eta gabetzea.

2. Foru lege honen bidez arrazakeriaren agerpen hauen kontra jo nahi da bereziki:

**Egiturazko arrazakeria:** ideologia honek instituzionalizaturiko hainbat jarrera, portaera eta jardunbide biltzen ditu, eta horiek diskriminazioa eta gizarte-desberdinkeria eragiten dute arraza-izae-ran oinarrituta. Arrazakeria instituzionala: erakundeen eta antolakundeen funtzionamendua, hala-koa non, azkenean, desberdintasunak sortzen baititu herritar taldeen artean, haien jatorriaren edo arrazializazioaren arabera, ondasunak, zerbitzuak eta aukerak banatzeko orduan. Hartan sartzen dira talde arrazializatuei zuzenean nahiz zeharka kalte egiten dieten politikak, jardunbideak eta prozedurak, galarazten dietenak berdintasuneko posizio batera iristea.

**Gizarte-arrazakeria:** pertsonen artean gertatzen da, eta eguneroko honako ekintza indibidual edo/eta kolektibo hauen bidez azaleratzen da: hitzezko erasoak, eraso fisikoak, tratu txarrak, diskriminazio-jardunbideen edo desberdinkereren balidazioa.

**Xenofobia:** atzeritarrekiko mesfidantza, gorroto eta etsaitasuneko jarrera, jokabide eta sentimenduei egiten die erreferentzia.

**Antigitanismoa:** ijitoen kontrako arrazakeria mota espezifiko, arraza nagusitasunaren ideologian oinarritua, zeina gizagabetze eta arrazakeria instituzionalaren modu bat baita, diskriminazio historiko batek elikatua, besteak beste azaleratzen dena indarkerian, beldurraren diskurtsoan, esplotazioan eta diskriminazio modurik agerikoenean.

**Islamofobia:** arrazakeria espezifiko, islamaren jarraitzaileen kontrakoa edo, izan ala ez, halakotzat hartzen direnen kontrakoa. Joera horretaz intolerantzia eta diskriminazio erlijiosoak balitz bezala hitz egin ohi da, arrazarekin zerikusia duela alde batera utzita. Baina arrazakeria mota historiko bat du oinarri, musulmana den beste horren sinesmenak gutxiesten dituen eta, horrenbestez, haren kontrako diskriminazioa eta berdintasunik gabeko estatusa legitimatzen dituen. Islamofobia eta antisemitismoa arrazakeriaren agerpenak dira, kultura eta erlijioa arraza adierazle gisa baliatzen dituztenak.

**Beltzen kontrako arrazakeria:** hezkuntza, osasun arreta eta justizia bezalako instituzioetan erroturik dauden politikak eta jardunbideak, Afrika beltzeko jatorriko pertsonen kontrako sinesmenak, jarrerak, aurreiritziak, estereotipoak edo/eta diskriminazioa islatzen eta sendotzen dituztenak.

**Sinofobia:** Txinako jatorriko pertsonen edo haien ondorengoen, kulturaren edo bien kontrako gorroto edo/eta arbuio mota. Herra horrek ekintza arrazistak eta xenofoboak sortzen ditu, eta horrek komuni-



tate horren aurkako eraso fisikoak, hitzezkoak, psikologikoak edo/eta instituzionalak eragiten.

## I. TITULUA

### Prebentzio eta babes neurriak

#### I. KAPITULUA

##### Arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko mekanismoak

**6. artikulua.** Diskriminaziorik ezeko printzipioa txertatzea politika publikoetan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta sektore publiko instituzionalak politika publiko eta jarduera administratibo guztietan bermatuko dute berdintasunaren eta etnia edo arrazagatiko diskriminaziorik ezeko printzipioa.

Administrazioak arrazakeria eta xenofobia desagerrarazteko hartu behar diren neurri guztiak hartuko ditu.

Departamentuen arteko koordinazio-talde bat sortuko da, berdintasunarekiko eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezarekiko konpromisoa bermatzeko, zeharkakotasunez.

**7. artikulua.** Kulturen arteko bizikidetzatza sustatzea.

Nafarroako Gobernuak kulturen arteko bizikidetzatza sustatuko du, elkarrekiko errekonozimendua, elkar ulertzea eta elkarren ezagutzatza bultzatuz.

**8. artikulua.** Aitortza eta babes instituzionala.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroan arrazializatutako pertsonen diskurtsoei eta narrazioei tokia ematen eta zabaltzen lagunduko du. Hartara, kanpaina eta ekintza positiboak babestu eta egiten ditu, aniztasunaren balio positiboa sustatzeko helburuarekin.

2. Antolakundeek eta enpresek erantzukizun sozialeko ekintzak egitea ere sustatuko du, hots, neurri ekonomikoak, merkataritzakoak, lan-arlokoak, asistentzialak edo bestelakoak ezartzea, helburua izanik tratu berdintasunerako eta etnia edo arrazakeriagatiko diskriminaziorik ez izateko baldintzak sustatzea antolakunde eta enpresa horietan edo haien ingurune sozialean, zeinek Administrazioaren aholkularitza izan baitezakete proiektuan eta ekintza horien aplikazioan, eta plantillako ordezkariari hartutako neurri horien berri emateko betebeharrarekin.

**9. artikulua.** Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planak.

1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana taxutuko du Nafarroako Gobernuak.

Plana izanen da jarduketaren ardatz nagusia, helburuak eta ildo estrategikoak ezarriko baititu, bai eta, hartu beharreko neurriak bilduta, horretarako aurrekontua eta planaren ebaluazioa egiteko gobernantza-eredua ere. Estatuan eta Europar Batasunaren esparruan onesten diren arrazakeriaren aurkako planak gogoan hartuta ezarriko da plan hori, eta 5 urterako berrikusi eta berrituko da.

Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten antolakundeek eta gutxiengo etnikoetako pertsonen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteek plan horren prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen dutela bermatuko da.

2. Nafarroako Gobernuak behar den bultzada eta laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen dizkie toki erakundeei, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak eta planak gara ditzaten, arrazakeriaren agerpen espezifikoerantzuteko beren eskumenen esparruan. Plan horiek parte-hartze prozesuen bidez egitea sustatuko da, eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ari diren antolakundeek eta pertsona arrazializatuen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteek egindako lan kolektiboan oinarrituta.

3. Nafarroako Gobernuak gizarte-erakundeak bultzatuko eta babestuko ditu, arrazakeriaren aurka borrokatzeko planak edo jarduera-protokoloak txerta ditzaten etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazio-kasuetan.

4. Nafarroako Gobernuak zainduko du administrazio korporatiboek, enpresa-erakundeek, sindikatuek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek, partzuergoek eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten era guztietako entitateek arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako neurri espezifikoak edo protokoloak izatea.

5. Enpresetan eta antolakundeetan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako neurriak eta protokoloak egin eta ezar daitezzen sustatuko du Nafarroako Gobernuak, eta laguntza eta aholkularitza emanen dizkie horiek prestatzeko.

**10. artikulua.** Prestakuntza.

1. Nafarroako Gobernuak prestakuntza eta sentsibilizazio egokia emanen die profesionaleri honako hauei buruz: arrazakeria eta etnia edo arrazagatiko diskriminazioa, arrazakeriaren aurkako ikuspegia eta estereotiporik gabeko komunikazio inklusibo eta ez-arrazista. Arreta berezia emanen zaie prebentzio, detekzio, arreta, asistentzia eta suspertze lanak egiten dituztenei honako arlo

hauetan: osasuna, hezkuntza, lan mundua, gizarte zerbitzuak, justizia eta segurtasun kidegoak, kirola eta aisia, eta komunikazioa.

2. Beste administrazio publiko batzuetako transferitu gabeko langileen prestakuntza ere sustatuko du, funtzionarioak izan nahiz lan-arlokoak izan, lankidetzaz hitzarmenen bidez edo beste tresna batzuk baliatuz.

**11. artikulua.** Digitalizazioa eta adimen artifiziala (AA).

Foru Administrazio Publikoan algoritmo-sistemen eta adimen artifizialeko sistemen gardentasunaren eta publizitate teknikoaren printzipioak beteko dira, sistema horiek trazabilitaterako bidea eman behar baitute, eta ulergarriak eta egiaztagarriak izan. Era berean, adimen artifizialaren erabilerek ukitutako herritarren parte-hartzea bermatuko da, aukera izan dezaten adierazteko ea egokitzat jotzen duten sistema baten erabilera aldatzea edo erabiltzeari uztea, desberdinkeriak sortzen badituzte edo diskriminatzaileak badira.

**12. artikulua.** Kontratazioa eta dirulaguntza publikoak.

1. Kontratu publikoen kontratazio-agirietan kontratuaren xedearekin lotutako adjudikazio irizpideak ezartzen ahalko dira, aniztasuna modu positiboan ikusarazten duten eta etnia- edo arraza-jatorri minoritarioko pertsonen gaitasunak aitortzen dituzten neurriak baloratuko dituztenak, baita arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako detekzio, prebentzio eta jardun neurriak eta protokoloak ere.

Era berean, kontratuak betetzeko baldintza bereziak ezartzen ahalko dira, aniztasuna modu positiboan ikusarazteko eta etnia- edo arraza-jatorri minoritarioko pertsonen gaitasunak aitortzeko neurriekin lotuta, bai eta arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako detekzio, prebentzio eta jardun neurriak eta protokoloak betetzearekin ere.

2. Dirulaguntzak arautzeko oinarrietan, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo eta entitateek deitzen dituzten bestelako laguntza publikoak arautzekoetan, dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak gehitzen ahalko dira, horien bidez baloratzeko eskatzaileek arrazakeriaren aurka borrokatzeko planak ote dituzten, aniztasuna sustatzen eta aitortzen parte hartzeagatik aitortza publikoa ote duten, eta antolakundearen egituran etnia- edo arraza-jatorri askotariko langileak ote dituzten.

**13. artikulua.** Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua.

1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua sortzen da honen bidez, Foru Administrazio Publikoan etnia- edo arraza-jatorriak eragindako diskriminazioaren arloan kontsulta eta parte-hartzerako organo gorena izan dadin.

2. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Kontsulta eta aholkularitza eginkizunak betetzea etnia- edo arraza-jatorriak eragindako diskriminazio eza helburu duten politikak diseinatzeko.

b) Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten elkarten parte-hartze kolaboratiboa artikulatzea, batez ere pertsona arrazializatuen edo gutxiengo etnikoetako parte-hartze adierazgarria eta nabarmena dutenena, etnia- edo arraza-jatorriak eragindako diskriminaziorik ez izatea helburu duten politika publikoak planifikatzen, gauzatzen eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten.

c) Nafarroan etnia- edo arraza-jatorriak eragindako diskriminazioaren inguruko egoera orokorra aztertu eta ebaluatzea.

d) Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Planari buruzko txostenak egitea, Nafarroako Gobernuak onetsi aurretik.

e) Indarreko arauetan ezartzen zaizkion gainerrak eginkizunak.

3. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren arloko eskumena duen departamentuari atxikita egonen da. Departamentu horrek behar adinako laguntza teknikoa eman beharko dio bere eginkizunak egoki bete ditzan.

4. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendua foru dekretu baten bidez ezarriko da. Betiere, batzordeko kide izanen dira honako hauen ordezkariak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

b) Nafarroako toki entitateak.

c) Nafarroako Arartekoa.

d) Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ari diren elkarteak.

e) Nafarroan pertsona arrazializatuen edo gutxiengo etnikoetakoen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteak.

## II. KAPITULUA

### Arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko eta hari aurre egiteko politika publikoak

#### 14. artikulua. Hezkuntzaren arloko neurriak.

1. Irakaskuntzaren bidez, berdintasun printzipioan eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izatekoan heztea bultzatuko da, baita printzipio hori ezagutzea eta ulertzea ere. Horrez gain, jakitera emanen da foru lege hau izan badela, eta honen edukiak azalduko dira.

2. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak beharrezkoak diren neurriak ezarriko ditu eskola-segregazioa ezabatzeko, eta bermatzeko ikasleak modu ekitatiboan banatzen direla hezkuntza-maila guztietan.

3. Ikastetxeetako langileentzako prestakuntza eskaintzan prestakuntza espezifikoak egonen da kultura aniztasunari buruz, arrazakeriaren aurkako jarrerari buruz eta ikasle arrazializatuak eta migratuak Nafarroako hezkuntza-sisteman txertatzeari buruz. Prestakuntza horren helburua da modu positiboan ikustea ikasle guztiak, zalantzarik egon ez dadin denek hezkuntza-arrakasta lor dezaketela, ez eta desorekarik ere hezkuntza zein lanbide-arloko ibilbideak proposatzeko orduan. Horrela, bada, arrazakeriaren aurkako ikuspuntua aplikatuko da bai tutoretzetan bai, zeharka, curriculumara irakasteen.

4. Etnia- eta arraza-aniztasun osoaren parte-hartzea sustatuko da, hezkuntza komunitateko organoen osaketarako ezarritako bideetatik.

**15. artikulua.** Lanaren eta enpleguaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak estrategia autonomiko bat abian jarriko du, politika publiko zehatz batzuekin. Politika horiek helburu izanen dute arraza-diskriminazioa eta enplegu-arloko jazarpena ezabatzea, eta parte-hartzea hobetzea, halako moduz non berdintasunez jarduten ahalko duten lan arloan arraza-diskriminazioa gehien paira dezaketen pertsonak.

2. Nafarroako Gobernuaren enpleguaren arloko eskumena duen erakundeak enplegu-politika aktiboak sustatuko ditu, sendotzeko eta sustatzeko bai konpetentzia pertsonalak eta profesionalak, bai enplegarritasuna. Politika horiek bide emanen dute pertsonak eredu zuzen bat izan dezaten enplegu aukeratarako.

Prestakuntza espezifikoak bultzatuko dira, enplegua lortzeko aukerak sustatzearen pertsona arrazializatu gutxien -bereziki, emakumeak- dauden sektoreetan.

3. Nafarroako Gobernuaren lan-arloko eskumena duen departamentuak neurriak bultzatuko ditu, arraza edo etniagatik diskriminatu litezkeen pertsonak erakunde profesionaletan eta sindikatuetan afiliatu eta parte hartzeko eskubidea izatea bermatzeko.

Gizarte-eragileen bitartez bultzatuko da hitzarmen kolektiboetan sartzen direla etnia- edo arraza-jatorriagatik pertsonak diskriminatzeko modu oro prebenitzeko, ezabatzeko eta zuzentzeko klausulak.

#### 16. artikulua. Osasunaren arloko neurriak.

Osasunaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu, batetik, osasun-zainketak hartzeko orduan arraza edo etniagatik diskriminazioa desagerrarazteko, eta, bestetik, pertsona arrazializatuen osasun integrala modu positiboan sustatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan. Zehazki:

a) Neurriak hartuko dira ziurtatzeko ez dela etniagatik diskriminaziorik gertatzen osasun-arretan, osasun mentaleko arreta barne. Horretarako, genero-ikuspegi interseksionala eta arrazakeriaren aurkako txertatuko da, eta protokoloak egiten dira pazienteen eta lan-inguruneke jokabide arrazistak prebenitzeko. Osasunari buruzko informazioa hainbat hizkuntzatan eman beharko da, pertsonen osasun integralerako zerbitzua bermatzeko, bakoitzaren etnia- edo arraza-jatorria zein den ere, baldintza berberetan.

b) Osasun-arloko jarrera arrazistak prebenitzeko ekintzak egiten dira hainbat hizkuntzatan (gidak eta prestakuntza-materiala barne).

c) Prestakuntza emanen zaie osasun-arloko eta kudeaketako langileei: osasunerako eskubide unibertsalari, tratu-berdintasunari eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateari buruzko edukiak irakatsiko zaizkie. Eduki horien helburua izanen da jendeak hobeki ezagutzea osasun-arreta jasotzearen arloko arauak, herritarrek osasun-zerbitzuetara eraginkortasunez iritsiko direla bermatzeko. Bereziki, prestakuntza emanen zaie osasun mentalaren arloko langileei, ematen den arreta arrazakeriaren aurkako ikuspegi kultur arteko batean oinarritua dela ziurtatzeko.

d) Ikerketa-lanak sustatuko dira, osasun-laguntza publikoaren kalitatea ebaluatzeko, eta balioesteko zer eragin dituen egiturazko arrazakeriak pertsona arrazializatuen osasunean. Horren

helburua da osasun politikak birdefinitzea, lortu nahi baita herritar guztien osasun-arloko beharrak ekitatez asetzea.

e) Sustatuko da ezaba daitezela, lan-arloan, arlo sozialean eta eskolakoan, estigma sortzen duten jarrera, arau eta jardunbide oro, bai eta gaitasunagatiko diskriminazioa ere, etnia- edo arraza-jatorriarekin interseksionala denean.

**17. artikulua.** Etxebizitzaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko ditu bizitegi-arloko segregazioaren aurka borrokatzeko. Horretarako, Nafarroako bizitegi-arloko segregazioaren mapa eginen da, zeinean emanen baitira segregazioaren dimentsioei eta mailei buruzko datuak (segregazio larria, bizitegi-kontzentrazio handia, pilaketa edo txabolismo bertikala, esate baterako).

2. Honako gai hauei buruzko informazioa emanen da, hainbat hizkuntzatan: pertsona arrazializatuen eskubideak, etxebizitzaren eta errentamenduen arloko legeria, diskriminaziozko eta legez kanpoko jardunbideak eta jardunbide horietatik babesteko nahiz jardunbide horiek zehatzeko mekanismoak.

3. Lanbide elkargoek beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dituzte bermatzearen etxebizitza eskuratzeko tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren araudia betetzen dela finken salerosketarekin edo errentamenduarekin lotutako jarduera profesionaletan.

**18. artikulua.** Gizarte zerbitzuen arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, gizarte zerbitzuak etnia- edo arraza-jatorriagatiko inolako diskriminaziorik gabe ematen direla bermatuko du, eta zerbitzuak eraginkortasunez baliatzen direla berdintasunez, zuzentasunez eta birbanaketa-justiziaz, gizarte zerbitzuen arloko araudiak ezartzen duen moduan.

2. Tratu berdintasuna eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik eza bermatuko zaie pertsona guztiei eta oro har ezarritako baldintza berberetan, eskubide, zerbitzu, prestazio eta laguntza sozialak eskuratzeko.

**19. artikulua.** Segurtasunaren, babes zibilaren eta larrialdien arloko neurriak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, ez da erabiliko etnia- edo arraza-ezaugarrietan oinarritutako profilik. Arrazarekin, etniarekin, erlijioarekin edo jatorri nazionalarekin lotutako adierazleak ezin izanen dira delitu-jokabide baten adierazle gisa erabili.

2. Nafarroako Gobernuak protokolo integral bat prestatuko du gorroto, arrazakeria eta xenofobia delituekin lotutako biktimezentzat, helburu nagusia izanen duena delituen salaketak jasotzea, sare sozialean egiten direnak barne, biktimei arreta, babesa eta orientazioa ematea poliziaren arloan eta larrialdiei ematen zaien arretaren arloan, biktimak elkartzen dituzten eta giza eskubideak babesten dituzten erakunde edo elkarteekin koordinatzea.

3. Nafarroako Gobernuak prestakuntza espezializatua eskainiko die Foru Komunitateko segurtasun-indar eta -kidego guztiei eta babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan lan egiten duten guztiei, honako hauen gainean: etnia- edo arraza-jatorriagatiko arrazakeria eta diskriminazioa, kultura-aniztasunaren polizia-kudeaketa eta emakume arrazializatuen aurkako indarkeria matxista.

**20. artikulua.** Komunikazioaren eta sare sozialeko arloko neurriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko hedabideek, publikoek nahiz pribatuak, zein den ere haien difusio-bidea, errespetatu egin beharko dute pertsonen eskubidea tratu berdintasunerako, eta saihestu etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazio edo estigmatizazio mota oro informazioaren tratamenduan, edukietan eta programazioan, mezu komertzialak eta publizitatea barne.

2. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, hedabideen eta informazioaren teknologien enpresen independentzia oztopatu gabe, sustatu behar du horietan har daitezen kode deontologikoak eta autoerregulaziorako akordioak, aurreiritzi diskriminatzaileak eta estereotiporik gabekoak, lagungarriak direnak honetarako:

a) Errespetuzko hizkuntzaren erabilera sustatzeko, batez ere arrazista eta xenofobia ez den hizkuntza, diskriminatzailea ez dena, orokorrean, hedabideetan terminologia iraingarria desagerrarazten laguntzen duena, mezu komertzialak eta publizitatekoak barne.

b) Gorrotora bultzatzeko diskurtsoak gertatzen direnean, horiek tratatzen eta haiei aurre egiten hedabideek dituzten eskumenak azpimarratzea.

c) 1. artikuluan aipatzen diren kolektibo guztien ordezkariak handitzea.

d) Eraginkortasuna hobetzea berdintasunerako eskubidearen kontra doazen edukiak prebenitzen eta desagerrarazten.

3. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, zaindu behar du eduki diskriminatzaileak zabal ez daitezen eremu digitalean.

4. Nafarroako Gobernuak kontzientziazio kanpainak eginen ditu helburu hauetarako: tratu berdintasuna eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazio eza sustatzea hedabideetan; informazio jarduerak sustatzea foru lege honetan aipatzen diren kolektiboetara buruz; gorrotora bultzatzeko diskurtsoez gogoeta sustatzea, eta horiek saihesteko moduei buruzko prestakuntza ematea eta hedabideetan indartzea gai honetako autoerregulazioa. Era berean, Nafarroako Gobernuak prestakuntza-ekintzak sustatuko ditu komunikatzaileak gaitzeko Nafarroan, sarean lan egin dezaten arrazakeriaren eta gorroto-diskurtsoen aurka mezuak zabaltzeko konpromisoarekin, kultura arteko ikuspegitik eta ikuspegi feminista intersektionaletik.

5. Nafarroako Gobernuak irmoki eginen die aurre sare sozialetan ugaritu diren gorroto-diskurtsoei. Hartara, laguntza emanen du Europako Batzordeak sustatutako prozesu batzuetan, zeinetan monitorizatuko baita Europar Batasunak duen jokabide kodea, Interneten gorrotoa legez kanpo sustatzearen kontrakoa. Era berean, protokolo bat ezartzen lagunduko du, Espainiako estatuan linea-ko gorroto-diskurtso ilegalaren aurka, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (OBERAXE) koordinaturikoa.

**21. artikulua.** Kirolaren, aisiaren eta denbora librearen arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du berdintasunez eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik gabe gauzatu daitezkeen kirola eta jarduera fisikoa, bai eta aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ere.

2. Behar diren neurriak hartuko dira bermatzeko jolas-jarduerak, kirol-jarduerak, aisialdikoak eta denbora librekoak pertsona arrazializatuekiko errespetuz eta berdintasunez eginen direla, aurreiritzi, jazarpen eta indarkeria fisiko edo psikologiko edozein ekintza saihesteko.

3. Neurriak hartuko dira, bermatzeko behar bezalako prestakuntza izanen dutela kirol-didaktikako, aisialdiko eta denbora libreko profesionalek. Prestakuntza horretan landuko dira arrazakeriaren oinarriak eta errespetua eta edozein eratako diskriminazioaren aurreko babesa. Horretarako, behar den harremana bilatuko da kirola, aisia, astialdia eta gazteria arloaren kudeaketan ordezkariak duten entitate publiko zein pribatuekin.

4. Kirol inklusiboa eta segregaziorik gabea sustatuko da, eta adierazpen arrazista oro desagerraraziko da Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren kirol-ekitaldietan.

**22. artikulua.** Kulturaren arloko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatu eginen du kulturaren eta sorkuntzaren arloan, bai eta jarduerak horiez gozatzean ere, ez dela etnia- edo arraza-jatorriagatiko inolako diskriminaziorik gertatuko, eta horietarako sarbidea modu ekitatiboan gertatzeko baldintzak sortuko ditu.

2. Nafarroako Gobernuak sustatu eginen du kultur bizitzan sartu eta parte hartzea, etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezari lagunduko dioten kultur edukiak sortuz eta zabalduz.

### III. KAPITULUA

#### Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurreko babesteko mekanismoak

**23. artikulua.** Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko arreta.

Nafarroako Gobernuak migrazio-politikaren gaitan eskumena duen departamentuak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako arreta zerbitzua emanen du, etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazioaren inguruan arreta integrala bermatuko, genero-ikuspegi intersektionalerik, eta esku hartzeko neurriak artikulatuko ditu biktimen prebentzio, detekzio, babes eta erreparaziorako, eta aholkularitza juridikoa eta arreta psikosoziala emanen ditu.

**24. artikulua.** Ofiziosko jarduketak.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Ararteak ofizioski jardun ahalko dute, inolako salaketarik edo kexarik jaso ez badute ere, tratu-berdintasuna eta arraza- edo etnia-jatorriagatiko diskriminaziorik eza bermatzeko helburua dutelako.

**25. artikulua.** Froga-zamaren inguruko errege-lak.

Pertsona batek diskriminazioa alegatzen badu eta diskriminazio hori benetan izan badela frogatzen badu zantzu oinarritunak aurkeztuta, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko Estatuko legerian eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitako froga-zamari buruzko arauak aplikatuko dira.

**26. artikulua.** Errepresalien aurkako babesa.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu pertsona edo talde bat tratu kaltegarri edo ondorio negatibo orotatik babesteko, tratu edo ondorio hori jasaten badu diskriminazio egoera bat eragozteko edo geldiarazteko administrazio prozedura batean edo prozesu judizial batean esku hartu, parte hartu edo laguntzeagatik edo helburu berarekin edozein motatako kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo errekurso aurkezteagatik.

Babesa emanen zaie demandatzaileei, biktimei, lekukoei eta, horiez gain, salatuak ekintza ororen aurrean duen erreakzioak ukitutako pertsona orori.

**27. artikulua.** Eragile juridikoentzako prestakuntza.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten elkarteekin eta lanbide elkargoekin lankidetzan, arrazakeriari eta xenofobiari buruzko prestakuntza berariazkoa emanen die erkidegoko eragile juridikoei.

**28. artikulua.** Hirugarren sektoreko entitateei laguntza ematea.

Nafarroako Gobernuak neurriak hartzen ahalko ditu laguntza ematearren arraza- edo etnia-jatorriagatiko diskriminazioaren arloan sentsibilizazio-, prebentzio- eta prestakuntza-lanak zein gizarte-salaketako lanak egiten entitate sozialei eta elkar-teei.

Ildo horretan, sustatu egingen da arrazakeriaren aurkako jarrera eraldatzailea eta eraginkorra ezartzen laguntzeko ekintzak gauzatzen dituzten entitate sozialen lanaren babesa eta entitate horiek arrazakeriaren aurkako esku-hartze sozial intersektionalarekin hartua duten konpromisoa.

**29. artikulua.** Mentoretza-programak elkartetan.

Nafarroako Gobernuak mentoretza soziala baloratuko du, irizita esperientzia horrek aberastu egiten dituela prozesu kolektiboak, autokonfiantza taldean, behar komunaren identifikazioa, eta nork bere eskubide eta betebeharrak ezagutzea.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak mentoretza sozialeko programak bultzatuko ditu, bai elkarten artean bai berdinkideen artean emandako zerbitzuak direnean. Erreferentziazko pertsonen aitortza ere sustatuko da. Erreferentziazko pertsonatzat joko dira lorpen pertsonalak edo profesionalak lortu dituzten pertsonetatik berdinkideen artean konfiantza eta motibazioa sortzen duten horiek.

Emakumeen arteko mentoretza sustatuko da bereziki, segurtasun-espazioak sortzen eta autonomia pertsonala eta lidergoa bultzatzen laguntzen baitu.

**30. artikulua.** Elkarten aitortza eta parte-hartzea.

Nafarroako Gobernuak baliozko solaskidetzat hartuko ditu Administrazio Publikoarekiko komunikazioetan eta informazio- eta ezagutza-trukean, Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka-

ko borrokan lan egiten duten elkarteak, batez ere pertsona arrazializatuen edo gutxiengo etnikoetako parte-hartze adierazgarria eta nabarmena dutenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak elkarteek eremu publikoan parte hartzeko guneak sustatuko ditu.

## II. TITULUA Erreparazioa

**31. artikulua.** Justizia erreparatiboa.

1. Nafarroako Gobernuak justizia erreparatiboko mekanismoak erabil daitezten sustatuko du, arrazakeriaren eta xenofobiaren ondorioen prebentzio eta erreparaziorako tresna nagusi gisa.

2. Nafarroako Gobernuak auzitegi barruko informazioa eta bitartekaritza bermatuko ditu, Doako Justiziaren Erregelamenduan ezarritako baldintzetan, eta, oro har, bitartekaritza eta jardunbide erreparatibo eta komunitarioak bideratuko ditu, kasuko erregulazioan ezarritakoaren arabera.

**32. artikulua.** Neurri espezifikoak.

1. Nafarroako Gobernuak ijito herriarekiko egia- eta adiskidetze-prozesu bat bultzatuko du. Prozesu horretan, errekonozimendu-politikak ezarriko dira.

2. Nafarroako Gobernuak aitortza neurriak sustatuko ditu Afrikako pertsona beltz esklabizatuen Atlantikoan zeharreko salerosketak eta kolonizazioak eragindako kaltearen inguruan.

**33. artikulua.** Auzi estrategikoak.

Nafarroako Gobernuak, migrazio-politika gaitan eskumena duen departamentuaren bitartez, auzi estrategikoen prozesuak bultzatzen ahalko ditu nazioarteko organismoetan. Nafarroako Gobernuak prozesu horien berri emanen du sare sozialen eta plataformen bidez.

## III. TITULUA Zehapen-araubidea

**34. artikulua.** Zehapen-araubidea.

Tratu-berdintasunerako eta nazionalitateagatik edo etnia- nahiz arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko eskubidea zeharo babesten dela bermatzeko, Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralean ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko da Nafarroan, lege horretan ezarritako moduan.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua.

Foru lege hau onesten denetik gehienez ere urtebeteko epean, organo eskudunak Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua sor dadin xedatuko du.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## 10-23/LEY-00002. Foru Legea, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari buruzkoa.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### Foru Legea, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari buruzkoa

#### ATARIKOA

Hamarkada gutxi batzuetan, existitzen ez zen material izatetik planeta osoko bazterretan egotera igaro da plastikoa. Haren ezaugarriak direla eta, industriarako material aproposa da: oso merkea, arina, moldagarria eta iragazgaitza da, kontsumitzailea erakartzeko kolore-sorta zabala har dezake, eta erresistentzia dauka korrosioarekiko eta narriadurarekiko.

Azken ezaugarri hori, baina, haren ahulgune handiena ere bada, eta bizi ditugun garaiotako ingurumen kezka handienetako bat, zalantzarik gabe. Material hau zati txikiagoetan baino ez da desegiten, alegia, mikroplastikoetan; organismo askok mikroplastiko horiek irensten dituzte, itsas-jakietatik bereizi ezinik, eta intoxikazioa dela kausa hil egiten dira. Halaber, benetan kezkagarriak dira giza gorputzen barruan geratzen diren mikroplastikoek ekar ditzaketan ondorioak; izan ere, halakoak aurkitu dira itsasotik datozen zenbait elikagaietan, gatzean eta botilako urean.

Estatuan, eta xede harturik plastikozko hondakin gutxiago sortzea eta birziklatzea sustatzea, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia sortu zen, Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen bidez.

Zerga berri hori zeharkako tributu bat da, berrerabili ezin diren ontzi plastikodunak Espainia-ko lurraldean erabiltzeari ezartzen zaiona.

Lege horren azken xedapenetako hamargarrenak dioenez, Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean Hitzarmen Ekonomikoa egokitzea erabakiko da, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 2022ko abenduaren 28an Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordean izenpetutako akordioarekin bat, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia ordainaraztean, Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu Nafarroak.

Hori dela eta, foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan arautzea berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia.

Hitzarmen Ekonomikoaren 3.1 artikuluari jarraikiz, Estatuari dagokio zerga berezien inportazioen erregulazioa, kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskapena. Horrenbestez, Nafarroak ez duenez eskumenik arlo horretan, foru legeak aipatu gabe uzten du, propio utzi ere, inportazioen arau-

bidea, 7/2022 Legean xedatutakoaren arabera izanen baita.

Ontziak lotuko zaizkio zergari, bai hutsik daudenak, bai salgaiak eduki, babestu, manipulatu, banatu edo aurkezten dituztenak.

Ontziak material batez baino gehiagoz osaturik daudenean, eta horietako bat plastikoa denean, plastiko kopuruaren arabera zergapetuko dira.

Zerga-egitatea da berrerabili ezin diren ontzi plastikodunen fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena.

Hala ere, kontuan hartuta batzuetan eragile ekonomiko batek baino gehiagok hartzen duela parte ontzi horien fabrikazioan, edo, are, ontzien zati jakin batzuk –itxigailuak kasurako– beste subjektu batzuek fabrikatzen dituztela, eta, ahal den neurrian, zergapekoen kopurua txikiagoa izan dadin, eta, horrenbestez, zergaren kudeaketa errazteko, bai eta hizpide ditugun subjektuen karga administratiboak gutxitze aldera ere, honako hau egonen da zergari lotua: plastikozko produktu erdilanduen fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena –termoplastikozko aurreformak edo xaflak, esaterako–, produktu horiek ontziak fabrikatzera bideratzen direnean, bai eta ontziak itxi, merkaturatu edo aurkezteko balio duten bestelako produktuak fabrikatzea edo eskuratzea. Hortaz, ez dute fabrikatzaile izaera izanen produktu erdilanduetatik abiatuta ontziari behin betiko forma ematen diotenak edo ontziari jada zergapetu diren plastikozko osagaiak –itxigailuak adibidez– eransten dizkietenak; fabrikatzaile ez direnez, ez dira zergadunak izanen.

Bestetik, produktu plastikoak birziklatu daitezzen sustatzeko xedez, zergaren xede-esparruko produktuetan birziklatutako plastikoa badago, plastiko birziklatuaren kopuru horri ez zaio zerga ezarriko.

Hori horrela, hauxe izanen da zerga-oinarria: zergaren xedeko produktuetan dagoen plastiko birziklatu gabea, kilogramotan. Zerga tasa 0,45 eurokoa izanen da kilogramo bakoitzeko.

Ez zaizkio zergari lotuko ondasunak edo produktuak eduki, babestu, manipulatu edo entregatzera bideratutako produktuei eransteko egiten diren margoak, tintak, laka eta itsasgarriak. Ez zaie zerga ezarriko, ezta ere, Europar Batasunaren barruan egiten diren ontzi eskurapen txikiei, salbuetsita daude eta. Eskurapen txikitat hartuko dira Europar Batasunaren barruko eskurapen horren xedeko ontzietan dagoen plastiko birziklatu gabea ez denean 5 kilogramo baino gehiago. Era berean, egokitzen jo da honako produktu hauek

zergatik salbuestea: botikak, osasun-produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakinak edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko edo aurkezteko erabiltzen direnak, eta nekazaritzan eta abeltzaintzan siloratzetarako erabiltzen diren plastikozko bilkariak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoa betetzeko, foru lege hau premiarren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera egin da.

Arauk tributuan baten sorrera arautzen du, eta, beraz, beharrezkoa da foru lege mailako arau baten bidez onartzea; ez da maila txikiagoko beste arau-aukerarik kontuan hartu.

Era berean, proportzionaltasun printzipioa ere betetzen da, eskuratu nahi diren helburuak erdiesaten ahalegindu baita. Izan ere, eta adibide gisa, ez zaio zerga ezarriko zergaren xede-esparruko produktuek duten plastiko birziklatuaren kopuruari, ez eta ontzi berrerabilgarri ere.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, bermatu da arau-proiektua foru-ordenamendu juridikoarekin koherentea dela.

Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Ogasunaren webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasunaren printzipioa errespetatzen dela.

Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, saiatu da arauak ahalik eta administrazio-karga eta zeharkako kostu gutxien izaten eta baliabide publikoen arrazoizko erabilera sustatzen. Ildo horretan, zergadunei eskatzen zaizkien informazio- eta dokumentazio-eskakizunak behar-beharrezkoak dira zerga administrazioak haien jardueraren kontrol minimoa bermatzeko.

#### **1. artikulua.** Izaera eta helburua.

1. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia zeharkako tributuan bat da; zergaren aplikazio-lurraldean ezarriko zaio berrerabili ezin diren ontzi plastikodunen erabilerari, bai ontziak hutsik daudenean, bai salgaiak eduki, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko erabiltzen direnean ere.

2. Zergaren helburua da, batetik, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien ondoriozko hondakinak sortu ez daitezzen sustatzea, eta, bestetik, bultzada ematea hondakin plastikoen birziklatzea-



ri, horrela, material horren zirkulartasunari lagunduz.

## 2. artikulua. Xede-esparrua.

1. Zerga honen xede-esparrukoak dira:

a) Berrerabili ezin diren ontzi plastikodunak.

Ondorio hauetarako, ontzi izanen dira salgaiak edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko diseinatutako gai guztiak, barne direla Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.m) artikuluan definitutakoak, eta nahiz eta definizio horrekin bat etorri ez, funtzio berberetarako eta baldintza berberetan erabiltzeko modukoak direnak, salbu eta gai horiek produktu baten osagai badira eta beharrezkoak badira produktu hori bere bizitza baliagarri osoan edukitzeko, mantentzeko edo zaintzeko eta haren osagai guztiak batera erabiltzeko, kontsumitzeko edo ezabatzeak badira.

Berrerabili ezin diren ontziak dira sortu, diseinatu eta merkaturatu ez direnak haien bizi-zikloan zirkuitu edo errotazio anitz egiteko, edo jatorrizko diseinuaren xede berbererako betetzeko edo berrerabiltzeko.

b) Produktu plastiko erdilanduak, a) letran aipatutako ontziak lortzera bideratutakoak, esaterako, termoplastikozko aurreformak edo xaflak.

c) Plastikoa duten produktuak, baldin eta berrerabili ezin diren ontziak itxeko, merkaturatzeko edo aurkezteko badira.

2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, plastikotzat hartuko da 7/2022 Legearen 2.u artikuluan definitutako materiala.

3. 1. apartatuan aipatzen diren produktuak material batez baino gehiagoz osaturik daudenean, eta horietako bat plastikoa denean, plastiko kopuruaren arabera zergapetuko dira.

**3. artikulua.** Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena

Nafarroako Foru Komunitateari dagokio zerga ordainaraztea eta ikuskatzea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35 bis artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

## 4. artikulua. Definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Europar Batasunaren barruko eskurapena: zergaren aplikazio-lurraldera –Kanarietara, Ceutara eta Melillara izan ezik–, Europar Batasuneko

beste estatu batetik eskuratzailerentzat igortzen edo garraiatzen diren eta zerga honen xede diren produktuen gaineko erabiltzeko ahalmena lortzea transmisioaren egileak, eskualdatzaileak berak edo hirugarren batek aurreko edozeinen izenean eta kontura.

Era berean, Europar Batasunaren barruko eskurapenen pareko eragiketatzat hartuko da zergaren xede diren produktuak produktuaren jabeak zergaren aplikazio-lurraldean jasotzea –Kanarietan, Ceutan eta Melillan izan ezik–, bidalketa Europar Batasuneko beste estatu batetik egin badu.

b) Fabrikazioa: zerga honen xedeko produktuak egitea.

Hala ere, ontziak egitea ez da fabrikaziotzat hartuko baldin eta bakar-bakarrik erabiltzen badira 2.1 artikuluen b) eta c) letretako zergapeko produktuak, edo, horiez gain, plastikorik ez duten beste produktu batzuk.

Era berean, fabrikazioa izanen da ontzietan plastikozko beste osagai batzuk eranstea, nahiz eta gai horiek, banaka, ez izan zergaren xede-esparrukoak; izan ere, gai horiek ontzietan eranstea, ontzien parte bihurtzen dira.

c) Kudeaketa bulegoa: Nafarroako Foru Ogasunaren egitura organikoaren arauekin bat, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen organoa.

d) Produktu erdilanduak: tarteko produktuak dira, eraldatze-eragiketa bat edo batzuk izan dituzten lehengaietatik lortutakoak; ontziaren zereginetara bideratu aurretik beste eraldatze fase bat edo batzuk beharko dituzte.

e) Osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak: berriazko baldintza eta arauen arabera kudeatzen diren edukiontzi sanitarioetara bota behar diren hondakinak dira; izan ere, horrela prebenitzen da gaixotasunen hedapena, eta herritarren osasun eta segurtasuna zaintzen dela bermatzen.

f) Zergaren aplikazio-lurraldea: Espainia.

2. Foru lege honetan agertzen diren eta substantibitate propioa duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, kapitulu honetan definitzen direnak salbu, zerga honen xede-esparruan sartzen diren produktuei buruz Europar Batasuneko eta Estatu-ko araudian xedatzen dena bete beharko da.

## 5. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zergari lotuta dago zerga honen xede-esparruko produktuen fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena.

2. Halaber, zergari lotuta dago zerga honen xede-esparruko produktuak zergaren aplikazio-lurraldean arauz kontra sartzea.

Produktu horiek zergaren aplikazio-lurraldean arauz kontra sartu direla joko da horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituenak ez badu egiaztatzen produktuak fabrikatu, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratu dituela, edo ez badu justifikatzen produktuak Espainian eskuratu direla.

**6. artikulua.** Zergari lotuta ez dauden kasuak.

Ondokoak ez zaizkio zergari lotuko:

a) Zergaren xede-esparruko produktuen fabrikazioa, baldin eta zergaren sortzapena baino lehen erabiltzeko egokiak izateari utzi badiote edo suntsitu badira, eta, betiere, hori gertatu dela frogatu bazaio Nafarroako Foru Ogasunari, zuzenbidean onargarri den edozein frogabideren bidez.

b) Zergaren xede-esparruko produktuen fabrikazioa, baldin eta, fabrikatzaileak zuzenean edo hirugarren batek haren izenean edo kontura, zergaren aplikazio-lurraldetik kanpora bidaltzeko erabiltzen badira.

Zergari lotuta ez dagoen kasu hori eraginkorra izan dadin, produktuak zergaren aplikazio-lurraldetik benetan atera direla frogatu beharko da.

c) Zergaren xede-esparruko produktuei erans-teko sortzen diren margo, tinta, laka eta itsasgarrin fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena.

d) 2.1 artikulua a) letran aipatzen diren produktuen fabrikazioa edo eskurapena, baldin eta, produktu horiek salgaiak edukitzeko, babesteko edo manipulatzeko modukoak izanik ere, salgai horiekin batera entregatzeko diseinaturik ez badaude.

**7. artikulua.** Sortzapena.

1. Fabrikazio kasuetan, zergaren sortzapena gertatuko da fabrikatzaileak eskuratzailerari lehenbizikoz entregatzen edo eskura jartzen dizkionean, zergaren aplikazio-lurraldean, zergaren xede-esparruko produktuak. Kontrakoa frogatu ezean, fabrikatutako produktuen stockak behera egiten duenean, ulertuko da fabrikatzaileak produktu horiek entregatu edo eskueran jarri dituela.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga-egitatea egin aurretik ordainketa aurreratua egiten badira, zerga sortuko da benetan jasotako zenbatekoengatik prezioa osorik edo partzialki kobratzen den unean.

2. Europar Batasunaren barruko eskurapenen kasuan, zergaren xede-esparruko produktuak eskuratzailerari bidaltzen edo garraiatzen hasten den hilabetearen hurrengo hilabeteko 15ean gertatuko da zergaren sortzapena, non ez den egun hori baino lehen egiten eragiketa horiengatik faktura; kasu horretan, zergaren sortzapena hura jaulkitzen den egunean gertatuko da.

3. 5.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, zergaren sortzapena gertatuko da zergaren xede-esparruko produktuak zergaren aplikazio-lurraldean arauz kontra sartzen diren unean, eta, hori noiz gertatu den jakiterik ez badago, arauz kontrako sarrera hori preskribatu gabeko likidazio-epeetako aurrenekoan egin dela joko da, non eta zergadunak ez duen frogatzen beste epe bati dagokiola.

**8. artikulua.** Salbuespenak.

Ondoko hauek salbuetsirik geldituko dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan:

a) Honako hauen fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena:

1. 2.1 artikulua a) letran aipatzen diren ontziak, baldin eta erabiltzen badira botikak, osasun-produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakinak edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko edo aurkezteko.

2. 2.1 artikulua b) letran aipatzen diren produktu plastiko erdilanduak, baldin eta erabiltzen badira botika, osasun-produktu, erabilera mediko berezietarako elikagai, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakin edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuetarako ontziak egiteko.

3. Berrerabili ezin diren ontziak ixteko, merkaturatzeko edo aurkezteko erabiltzen diren produktu plastikodunak, baldin eta erabiltzen badira botikak, osasun-produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakinak edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko.

Salbuespen hori eraginkorra izan dadin, frogatu beharko da aurreko apartatuetan bildu diren produktuak benetan bideratu direla bertan ezarritako erabileretarako. Zehazki, zergadunek adierazpen bat eskuratu beharko dute eskuratzailengandik, erabilera horietarako produktuak lehenbizikoz entregatu edo eskura jarri baino lehen; adierazpen horretan adieraziko dute zein den produktuen erabilera, zerga salbuespenerako eskubidea emanen diena. Adierazpen hori gorde egin beharko da Tributuei buruzko abenduaren

14ko 13/2000 Foru Legearen 55. artikuluan aipatzen diren zergaren preskripzio-epeetan.

b) 2.1 artikulua a) letran aipatzen diren ontzien Europar Batasunaren barruko eskurapena, baldin eta zergaren aplikazio-lurraldean sartzen badira botikak, osasun-produktuak, erabilera mediko berezietarako elikagaiak, ospitale-erabilerrako bularreko haurrentzako prestakinak edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuak edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko.

c) Nekazaritzan edo abeltzaintzan bazka edo zerealak siloan sartzeko paka edo fardoetan erabiltzen diren plastiko bilkarien fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena.

d) Zergaren xede-esparruko produktuen Europar Batasunaren barruko eskurapena, baldin eta, zerga-egitate horri dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen, produktu horiek zuzenean bidaltzen baditu zergaren aplikazio-lurraldetik kanpora Europar Batasunaren barruko eskuratzailerak, edo beste batek haren izenean edo kontura.

Salbuespen hori eraginkorra izan dadin, produktuak zergaren aplikazio-lurraldetik benetan atera direla frogatu beharko da.

e) Zergaren xede-esparruko produktuen Europar Batasunaren barruko eskurapena, baldin eta, zerga-egitate horri dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen, erabiltzeko egokiak izateari utzi badiote edo suntsitu badira, eta, betiere, hori gertatu dela frogatu bazaio Nafarroako Foru Ogasunari, zuzenbidean onargarri den edozein frogabideren bidez.

f) 2.1 artikulua a) letran aipatzen diren ontzien Europar Batasunaren barruko eskurapena, bai ontziak hutsik sartzen direnean, bai beste ondasun edo produktu batzuk edukitzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko sartzen direnean, baldin eta Europar Batasunaren barruan eskuratutako ontzi horien plastiko birziklatu gabearen guztizko pisua ez bada, hilabete batean, 5 kilogramo baino handiagoa.

g) Honako hauen fabrikazioa edo Europar Batasunaren barruko eskurapena:

1. Produktu plastiko erdilanduak, zeinak 2.1 artikulua b) letran aipatzen baitira, zergaren xede-esparruko ontzietarako erabiltzen ez direnean.

2. Berrerabili ezin diren ontziak ixteko, merkaturatzeko edo aurkezteko erabiltzen diren produk-

tu plastikodunak, erabilera horietarako ez direnean.

Salbuespen hori eragingarria izan dadin produktu horiei benetan emandako erabilera egiaztatu beharko da. Zehazki, zergadunek adierazpen bat eskuratu beharko dute eskuratzailerengandik, produktuak lehenbizikoz entregatu edo eskura jarri baino lehen; adierazpen horretan adieraziko dute zein den produktuen erabilera. Adierazpen hori mantendu egin beharko da 13/2000 Foru Legearen 55. artikuluan aipatzen diren zergaren preskripzio-epeetan.

### 9. artikulua. Zergadunak.

5.1 artikuluan azaldutako kasuetan, zergadunak izanen dira 13/2000 Foru Legearen 25. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, baldin eta zergaren xede-esparruko produktuak fabrikatzen edo Europako Batasunaren barruan eskuratzeko badituzte.

Zergaren xede-esparruko produktuak arauz kontra sartzen direnean zergaren aplikazio-lurraldean (5.2 artikuluan dago zehazturik), produktu horiek eduki, merkaturatzen, garraiatzen edo erabiltzen dituen izanen da zergaduna.

Zergaren xedeko produktuak zertarako erabili diren justifikatzean irregulartasunik izanez gero, erabilera hori dela-eta albuespen bat izan dute, zergadunek zerga ordaindu beharko dute, bai eta ezar daitezkeen zehapenak ere, baldin eta ez badute justifikatzen eskuratzailerak, jasotzeko ahalmena duenak, produktuak jaso izana, 8. apartatuan aipatzen den aurretiazko adierazpena aurkeztuta. Hura jasotzen denetik aurrera, eskuratzailerak ordaindu beharko dute zerga.

### 10. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria izanen da zergaren xede-esparruko produktuetan dagoen plastiko birziklatu gabearen kopurua, kilogramotan.

Zergaren xede-esparruko produktuen sortzapeña gertatu bada, eta, ondoren, produktu horiei plastikozko beste osagai batzuk eranstean bazaizkie, halako moduz non erantsi ostean produktuen parte izanen baitira, zerga-oinarria izanen da produktuei erantsi zaien plastiko birziklatu gabearen kopurua, hori baino ez, kilogramotan.

2. Plastiko birziklatutzat hartuko da 7/2022 Legearen 2.u) artikuluan definitutako materiala, baldin eta hura eskuratu bada lege horren beraren 2.bc) artikuluan aipatutako balorizazio-eragiketen bidez.

3. Artikulu honen ondorioetarako, zergaren xede-esparruko produktuek duten plastiko birzikla-

tuaren kopurua egiaztatu beharko da, egiaztape-nak egiteko akreditaturik dagoen entitate baten bidez, UNE-EN 15343:2008 arauaren («Plastikoak. Plastikoen birziklatuak. Plastikoen birziklatzearen trazabilitatea eta adostasunaren ebaluazioa eta birziklatze-edukia») edo ordezkotza arauen menpe. Kimikoki birziklatu den plastikoaren kasuan, kopuru hori egiaztatzeke ziurtagiria ondorio horietarako akreditaturik edo gaiturik dagoen entitateak eman beharko du.

Ziurtapen-entitateek Egiaztatze Erakunde Nazionalaren (EEN) akreditazioa izan beharko dute, edo Europar Batasuneko beste edozein estatutako egiaztatze organismo nazionalarena, zeina izendatuta egonen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritakoarekin bat (erregelamendu horren bidez ezartzen dira akreditatzeko eta merkatuak zaintzeko baldintzak, produktuaren merkaturatzearekin lotuta, eta 339/33 Erregelamendua (EEE) indargabetzen da); Europar Batasunetik kanpo fabrikatutako produktuaren kasuan, EENrekin nazioarteko aintzatespen akordio bat duen beste edozein egiaztatze organismoren akreditazioa izan beharko dute.

#### **11. artikulua.** Zerga-tasa.

Zerga tasa 0,45 eurokoa izanen da kilogramo bakoitzeko.

#### **12. artikulua.** Kuota osoa.

Zerga-oinarriari aurreko artikuluan ezarritako zerga-tasa aplikatzearen emaitza da kuota osoa.

#### **13. artikulua.** Kenkariak.

1. Likidazio-aldi bakoitzari dagokion autolikidazioan ondoren aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, kasuan-kasuan arauz ezartzen diren baldintzekin bat, zergaren xede-esparruko produktuak Europako Batasunaren barruan eskuratzen dituen zergadunak aukera izanen du aldi horretan zergarengatik sortutako kuotari honako hauen kontura ordaindutako zergaren zenbatekoa kentzeko:

a) Zergadunak, edo beste batek haren izenean edo kontura, zergaren aplikazio-lurraldetik kanpora igorritako produktuak.

b) Eskuratzailleari zergaren aplikazio-lurraldean lehenbizikoz entregatu edo eskura jarri aurretik erabiltzeko egokiak izateari utzi dioten edo suntsitu diren produktuak.

c) Eskuratzailleari entregatu edo eskura jarri ondoren itzuli diren produktuak, suntsitu edo fabrikazio prozesuan berriro sartu ditzaten, horien zenbatekoa eskuratzailleari atzera ordaindu ondoren.

Apartatu honetan bildutako kenkariak aplikatzeko baldintza izanen da, batetik, inguruabar horiek gertatu direla frogatu ahal izatea Nafarroako Foru Ogasunean, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez, eta, bestetik, zerga ordaindu dela frogatzea, dagokion ordainagiriaren bidez.

2. Kasuan-kasuan arauz ezartzen diren baldintzekin bat, zergaduna zergaren xede-esparruko produktuaren fabrikatzailea denean eta produktu horiek itzultzen direnean, suntsitu edo fabrikazio prozesuan berriro sartu behar direlako, inguruabar horiek gertatzen diren aldiko autolikidazioan kentzen ahalko du, aldi horretan zergarengatik sortutako kuotatik, produktu horiengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa, produktu horiek eskuratzailleari lehenbizikoz entregatu edo eskura jarri ostean itzuli direnean, eta, betiere, produktu horien zenbatekoa eskuratzailleari atzera ordaindu ondoren.

Kenkaria aplikatzeko baldintza izanen da, batetik, inguruabar horiek gertatu direla frogatu ahal izatea Nafarroako Foru Ogasunean, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez, eta, bestetik, zerga ordaindu dela frogatzea, dagokion ordainagiriaren bidez.

3. Baldin eta aurreko bi apartatuen arabera bidezkoak diren kenkariaren zenbatekoak likidazio-aldi batean sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen badu, soberakina hurrengo autolikidazioetan konpentsatzen ahalko da, betiere ez badira lau urte igaro soberakina gertatu zen likidazio-aldia amaitu zenetik.

4. Kenkariaren zenbatekoak gainditzen badu urte naturaleko azken likidazio-aldian sortutako kuoten zenbatekoa, zergadunak eskubidea izanen dute likidazio-aldi horri dagokion autolikidazioan beren alde dagoen saldoa itzultzea eskatzeko.

#### **14. artikulua.** Diru-itzulketak.

1. Honakoek eskubidea izanen dute ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzea eskatzeko, arauz ezartzen diren baldintzetan, hala badagokio:

a) Zergaren xede-esparruko produktuaren eskuratzailleak, zergadun izan gabe, produktu horiek zergaren aplikazio-lurraldetik kanpora bidali direla frogatzen badute.

b) Zergaren xede-esparruko produktuaren eskuratzailleak, zergadun izan gabe, frogatzen badute produktu horiek honako hauetarako erabiliko direla: botika, osasun-produktu, erabilera mediko berezietarako elikagai, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakin edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuen ontzietarako, halako erabi-

leretarako ontziak eskuratzeko edo botika, osasun-produktu, erabilera mediko berezietarako elikagai, ospitale-erabilerako bularreko haurrentzako prestakin edo osasun-jatorriko hondakin arriskutsuetarako ontziak ixteko, merkaturatzeko edo aurkezteko.

c) Zergaren xede-esparruko produktuen eskuratzailleak, produktu horiek berrerabiliak ez izateko sortu, diseinatu eta merkaturatu direnez zergari lotuta daudenean, egiaztatzen badute, kasua bada, produktuetan aldaketaren bat eginez gero berrerabili daitezkeela.

d) Honako hauen eskuratzailleak:

1. Produktu plastiko erdilanduak, zeinak 2.1 artikulua b) letran aipatzen baitira, zergaren xede-esparruko ontzietarako erabiltzen ez direnean.

2. Berrerabili ezin diren ontziak ixteko, merkaturatzeko edo aurkezteko erabiltzen diren produktu plastikodunak, erabilera horietarako ez direnean.

2. Aurreko apartatuan jasotako itzulketak eraginkorrik izan daitezen, hartan aipatzen diren inguruabarrak gertatu direla frogatu beharko da Nafarroako Foru Ogasunean, zuzenbidean onargarri den edozein frogabideren bidez, bai eta zergaren ordainketa egin dela ere.

**15. artikulua.** Kudeaketa-arau orokorrak.

1. Fabrikazio edo Europar Batasunaren barruko eskurapenaren kasuan, zergadunak beharturik daude autolikidazioa egin eta zerga-zorren zenbatekoa diru-sarrera bidez ordaintzera.

Likidazio-aldia hiruhileko naturala izanen da, salbu eta balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa hilean behin egiten duten zergadunen kasuan, eragiketa-bolumenarengatik edo zerga horren araudian ezarritako bestelako inguruabarrarengatik; kasu horretan, hilekoa izanen da, baita ere, zerga honen likidazio-aldia.

2. Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezarriko ditu aurreko apartatuan aipatzen diren autolikidazioak aurkezteko ereduak, epeak eta baldintzak edo, kasua bada, zergaren itzulketak eskatzekoak.

3. 5.1 artikuluan adierazitako jarduerak egiten dituzten zergadunak, salbu eta zerga arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehazten direnak, beharturik daude, jarduera hasi baino lehen, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurraldeko erregistroan inskribatzera.

Zerga honi lotuta dauden zergapekoen errolda, bai eta lurraldeko erregistroan inskribatzeko prozedura ere, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez arautuko dira.

4. Beste arau batzuetan ezarritako kontabilitate betebeharrak gorabehera, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehaztuko diren fabrikatzaileek zergaren xede-esparruko produktuen kontabilitatea eraman beharko dute, eta, kasua bada, produktuak lortzeko behar diren lehengaiena. Kontabilitatea eramateko betebeharra betetzeko, men eginen zaie zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen modu, prozedura eta epeei.

5. Zergaren xede-esparruko produktuen Europar Batasunaren barruko eskurapenak egiten dituzten zergadunek, zerga arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehaztuko direnak izan ezik, izakinen erregistro liburu bat izanen dute, eta kudeaketa bulegoari aurkeztu beharko diote, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen duen prozedurarekin bat eta zehazten dituen epeetan.

6. Espainiako lurraldean establezimendurik ez duten zergadunek pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute zerga-administrazioaren aurrean ordezkatzeko, zerga honengatik dituzten betebeharrak dagokienez, eta izendapen hori egin beharko dute zerga honen zerga-egitatea den lehen eragiketa egin aurretik.

Espainiako lurraldean establezimendurik ez duten zergadunak ordezkatzeko dituzten pertsona fisiko edo juridikoa beharturik egonen da berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurraldeko erregistroan inskribatzera, zerga honen zerga-egitatea den lehen eragiketa egin aurretik.

7. Espainiako lurraldean establezimendurik ez duten zergadunak ordezkatzeko dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, artikulua honen aurreko apartatuetan ezarritakoarekin bat berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurraldeko erregistroan inskribatzera beharturik badaude, aipatu erregistroa arautzen duen foru aginduak indarra hartu eta ondoko hogeita hamar egun naturalean egin beharko dute inskripzioa.

8. Zergaren aplikazio-lurraldean zergaren xede-esparruko produktuak saldu edo entregatzen direnean, honako betebeharrak hauek izanen dira:

a) Produktua fabrikatu ostean zergaren lurralde esparruan egiten den lehenbiziko salmenta edo

entregan, fabrikatzaileek eskuratzailari jasanarazi beharko diote salmenta edo entrega hori egitean sortu duen zergaren kuoten zenbatekoa. Egiten duten fakturan honako hauek adierazi beharko dituzte, modu berezian:

Lehena. Sortutako kuoten zenbatekoa.

Bigarrena. Produktuek duten plastiko birziklatu gabearen kopurua, kilogramotan.

Hirugarrena. Salbuespen kasuren bat aplikatzekoa den; zehaztu beharko da salmenta edo entrega zein artikuluri jarraikiz salbuesten den.

b) Gainerako kasuetan, zergaren xedeko produktuak saldu edo entregatzen dituztenek ziurtagiri batean edo salmenta/entregan ondoriozko fakturretan adierazi beharko dituzte, eskuratzailak aurrez eskaturik, honako hauek:

Lehena. Produktu horiengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa edo salbuespen kasuren bat aplikatu zaion; halakoetan, zehaztu beharko da onura fiskal hori zein artikuluri jarraikiz aplikatu zaion.

Bigarrena. Produktuek duten plastiko birziklatu gabearen kopurua, kilogramotan.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatzekoa izanen faktura erraztuak egiten direnean Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 7.1 artikulua aipatzen duen edukiarekin (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuak onetsi zuen erregelamendu hori).

#### **16. artikulua.** Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Artikulu honetan aurreikusitako xedapen bereziak ezertan galarazi gabe, zerga honen tributu arloko arau-hausteak 13/2000 Foru Legean eta hura garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

2. Tributu arloko arau-hausteak hauek izanen dira:

a) Ez inskribatzea berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurraldeko erregistroan.

b) Ordezkaririk ez izendatzea, lurraldean establezimendurik ez duten zergadunen kasuan.

c) Behar bezalako akreditazioa duen entitateak egiaztapen faltsua edo okerra egitea zergaren xede-esparruko produktuetan dagoen plastiko birziklatuaren kopuruaren gainean (kilogramotan).

d) Zergaren xede-esparruko produktuen eskuratzailak bidegabe hartzea 8. artikuluan a) eta g) letretako salbuespenen onura, letra horietan

adierazitakoa ez denean produktuen benetako erabilera.

e) 15.8 artikuluan aipatzen diren datuak oker adieraztea fakturan edo egiaztagirian.

3. 2. apartatuan jasotako arau-hausteak astunak izanen dira, eta honako arau hauen arabera zehatuko dira:

a) Aurreko apartatuaren a) eta b) letretako arau-hausteei diruzko isun finkoa ezarriko zaie, 1.000 eurokoa.

b) Aurreko apartatuaren c) letrako arau-hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, bildu gabe geratuko liratekeen zerga-kuoten zenbatekoaren %50ekoa, eta 1.000 eurokoa gutxienez.

b) letra horretan adierazitakoaren arabera dagoen zehapena %25 igoko da, tributu arloko arau-hausteak errepikatzen direnean. Errepikatzen direla joko da araua hausten duenak jardunbide baten ondorioz zehapena jasotzen badu, ebazpen irmo bidez, administrazio bidean, eta ondoko bi urtean berriro hausten badu araua, jardunbide berberetatik.

c) Aurreko apartatuaren d) letrean ezarritakoari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, bidegabe hartutako zerga-onuraren %150ekoa, eta 1.000 eurokoa gutxienez.

d) e) letrean ezarritakoari diruzko isun finkoa ezarriko zaio, 75 eurokoa, 15.8 artikuluan aipatzen diren datuak oker adierazten dituen faktura edo egiaztagiri bakoitzeko.

4. Aurreko apartatuan bildutako kasuetan 13/2000 Foru Legearen 71.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

**Xedapen iragankor bakarra.** Zergaren xede-esparruko produktuetan dagoen plastiko birziklatuaren kopuruaren gaineko egiaztapena.

2023. urtean zehar, 10.3 artikuluan xedatutakoaren orde, fabrikatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatzen ahal da zergaren xede-esparruko produktuek duten plastiko birziklatu gabearen kopurua.

**Azken xedapenetako lehena.** Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 25eko 1/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldatzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergari eta

energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, bigarren paragrafo bat eranstean zaio 1/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren hirugarren artikulua Bat.4 zenbakiari:

“Aurreko paragrafoan aipatutako denboran, biomasatik datozen briketa edo pelleten eta egurraren entregetan, ehuneko 0,62ko baliokidetasun-errekargua aplikatuko da”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren aldaketa.

2022ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin, 62.13.a) artikulua lehenengo paragrafoa aldatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Honela idatzita geldituko da:

“a) Ibilgailu berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute 100eko 30eko kenkaria egiteko, baldin eta ibilgailu elektrikoak badira, eta 100eko 5eko kenkaria, berriz, ibilgailu hibrido entxufagarriak badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/585 (EB) Erregelamenduan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan zehaztutako kategoria hauetakoren batekoak badira.”

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak, Hitzarmen Ekonomikoaren zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

## **10-23/LEY-00005. Foru Legea, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427 euroko kreditu-gehigarri bat ematekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427 euroko kreditu-gehigarri bat emateko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427 euroko kreditu-gehigarri bat ematekoa**

#### ATARIKOA

2022ko abenduaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-dekretua, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartearen berreraikuntzari laguntzeko eta beste zaurgarritasun egoera batzuetarako neurriei buruzkoa.

20/2022 Errege Lege-dekretu horretan zuzeneko laguntzen sistema bat ezartzen da 2023ko lehen seihilekorako, hiri edo hiri arteko garraio kolektiboaren zerbitzua ematen duten autonomia erkidegoei eta toki erakundeei horren finantzaketan laguntzeko. Laguntza horri esker, % 30eko hobaria egiten ahalko da autonomia erkidegoen edo udalen eskumeneko hiri eta hiri arteko garraioaren prezioan, baldin eta erkidego eta udal horiek erabakitzen badute % 20ko hobari gehigarria egitea bidaia anitzeko abonuen eta tituluaren prezioan - joan-etorriko txartelak alde batera utziz-, halako moduan non bidaia anitzeko abonua eta titulu horien prezioa erdira, gutxienez ere, murrizteko konpromisoa hartuko baita.

2023ko otsailaren 9an, Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Orokorak hartutako Erabakiaren bidez, Iruñerriko Hiri Garraioaren X. Plana (2023) aldatzea onetsi zen; bertan 29.422.693,86 euroko defizita onartu zen, zeinaren % 65, 19.124.926,51 euro, Nafarroako Gobernuak finantzatu behar baitu, eta gainerakoa, berriz, 10.298.037,35 euro, udalek.

Horrenbestez, proposatzen da 1.224.927 euroko kreditu-gehigarri bat izapidetzea "Iruñerriko

garraio publikorako ekarpena" izeneko 230001 23100 4609 441100 partidarako.

Bestetik, Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorretan 210001-21100-4609-922300 kodea eta "Petilla Aragoiko Udalerako transferentzia" izena duen partida bat dago, 10 euroko zenbatekoa duena. Egun ordaindu gabe daude Petilla Aragoiko Udalerari Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren uztailaren 5eko 316/2019 Ebazpenaren 4. puntuan xedatutakoaren ondorioz dagozkion diru kopuruak. Ebazpen horren bidez Petilla Aragoiko "Los Bastanes" izeneko finkaren errentamendua 5 urtez esleitu zen (gehienez ere 20 urtera luzatzeko aukerarekin), apirilaren 30eko 175/2019 Ebazpenaren bidez (GP 2019005) deitutako enkante publikoan esleitu ere.

Puntu horretan ezartzen denez, errentamenduak eragindako diru-sarrerak ordainduko da 2019ko sarreraren aurrekontuko "Petilla Aragoiko errentamendua" izeneko 111002-11300-5400-000002 partidan eta hurrengo urteetako aurrekontuetan hurrenez hurren gaitzen diren partidetan.

Era berean, adierazten da errentamenduaren prezioa, partida horretan sartzen dena, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak ordainduko diola Petilla Aragoiko Udalerari, Foru Diputazioaren 1980ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez udal horrekin izenpetu zen hitzarmenean ezarrita dagoen tutoretza araubide berezia dela eta.

Ondare Zerbitzuak finkaren errentamenduari dagokionez jaso dituen diru-sarrerak 44.086,35 euro dira 2021eko ekitaldian eta 48.406,80 euro 2022ko ekitaldian.

2021eko eta 2022ko ekitaldietan egin beharreko ordainketak egin gabe daudenez, eta toki erakundeak horiek jasotzeko eskubideak ez duenez preskribatu, beharrezkoa da 2023ko "Petilla Aragoiko Udalerako Transferentzia" izeneko 210001-21100-4609-922300 partidan kreditu-gehigarri bat egitea, 92.500 eurokoa, Foru Komunitateko Administrazioak udal horrekin dituen betebeharrak betetzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua 1. puntuak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta



dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen araber, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehiarri bat ematekoa.

Artikulu horren 2. apartatuan ezartzen denez, foru lege proiektu horretan zehaztu behar da zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatuko dutenak; edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaint-

zako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean.

**1. artikulua.** Kreditu-gehiarria ematea.

Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427 euroko kreditu-gehiarri bat ematen da 2023ko ekitaldian.

Horietatik 1.224.927 euro Iruñerriko Mankomunitatean sortutako defizitari aurre egiteko erabiliko dira, eta 92.500 euro Petilla Aragoiko Udalarari bertako "Los Bastanes" finkaren errentamendua esleitzeagatik dagokion dirua ordaintzeko.

Kreditu-gehiarri hau aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

"Iruñerriko garraio publikorako ekarpena" izeneko 230001-23100-4609-441100 partida	1.224.927 €
"Petilla Aragoiko Udalerako Transferentzia" izeneko 210001-21100-4609-922300 partida	92.500 €

**2. artikulua.** Kreditu-gehiarriaren finantzaketa.

1.317.427 euroko kreditu-gehiarri hau finantzatuko da 2023ko gastuen aurrekontuko "Iruña-Logroño A-12 autobiaaren kanona" izene-

ko 220003 22200 2090 453200 partidaren kargura.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **10-23/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, foru lege bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa**

#### **ATARIKOA**

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Eskubide Sozialetako Departamentuak, Garapen Ekonomikorako Departamentuak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak eta Kultura eta Kirol Departamentuak zenbait txosten bidali dituzte, non adierazten baitute 2023an ordaindu beharreko zenbait gastutarako ez dagoela aurrekontu-partida egokirik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo

ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, legezko kausa eta oinarri juridiko bat eskatzen du, hala 6. artikuluan datu gehienendako nola 9. artikuluan kategoria bereziendako (Historia Sozial Bateria-tuan ere badaude) hirugarren batzuek edo Administrazioak datu horiek tratatu ditzaten.

Era berean, eskatzen du adostasuna jasoko dela pertsonaren beraren aldetik eta harekin harremana duten edo haren eskubideko prestazioei dagozkien gainerako pertsonen aldetik ere. Legez aurreikusita dago informazio hori lortu eta tratatu ahal dela adostasunik gabe, beti ere legezko arauetan jasotzen bada.

Horregatik guztiagatik, Historia Sozial Bateria-tua osatzen duten datuetarako sarbidea errazteko eta Administrazioaren funtzionamenduari eta inplikaturako pertsonen eskubideari arintasuna emateko, beharrezkoa eta premiazkoa da lege izaerarekin arautzea.

**1. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea.

2023rako aurrekontuan guztira 9.788.715,24 euroko kreditu berezia ematen da, Nafarroako

Gobernuko departamentu batzuen premiak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Aurrekontu-partida	ZENBATEKOA
330000-33100-7609-921137 "Abaurregaineko Udalarekiko hitzarmena, patata-nabea izandakoa birgaitzeko"	314.000,00
210001-21300-7609-261682 "Agoizko Udalarentzako transferentzia. Instalazio fotovoltaikoa Toki Eder udal pilotalekuan eta ikastetxeko kiroldegian"	188.000,00
210001-21300-7609-261683 "Erronkariko Udalarentzako transferentzia. Eskoletara doan oinezkoen pasealekuko zoladura, argiteria publikoa eta hiri altzariak"	75.000,00
220003-22200-6010-453313 "NA-4000. Lesaka-Eurovelon zeharkako drainatze-kanalizazio berria"	100.000,00
211001-21200-4600-942110 "Toki erakundeen kostu energetikoen igoserari aurre egiteko funts berezia"	8.000.000,00
A50001-A5400-7609-336200 "Fiteroko Udalarentzako dirulaguntza udal kiroldegiko ekipamendurako"	7.000,00
A20001-A2100-7609-337119 "Eloko Udalarentzako dirulaguntza Zubialdea Erdi Aroko zubia eta Txirria birgaitzeko"	46.996,00
A20003-A2300-7609-333106 "Tafallako Udalarentzako dirulaguntza: Jotaren interpretazio zentroa"	25.000,00
A20000-A2000-2268-334103 ""Navarro Villoslada" literatura sariketa, gaztelaniaz eta euskaraz"	20.000,00
A20002-A2500-4816-334118 "Dantzaz Elkartearikiko hitzarmena"	10.000,00
A20003-A2300-4609-333103 "Luzaideko Udalarekiko hitzarmena, Populus Vasconiae eskultura multzoa egiteko eta haren inaugurazio ekitaldietarako"	10.000,00
A20002-A2500-7816-334100 "Nafarroako Antzerki Eskolarako dirulaguntza. Higiezinaren gaineko maileguaren amortizazioa"	40.000,00
A20001-A2100-7819-337103 "Aralarko San Migeleko ostalua eta aterpetxea birgaitzeko azterketa/proiektua"	100.000,00
900003 91600 2279 231502 231502 "Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa-Gizain Fundazioari mandatua Tramitazioko unitate mugikorrek"	195.934,30
900003 91600 7300 231500 "Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa-Gizain Fundazioa Tramitazioko unitate mugikorrek"	236.784,94
830001 83100 4819 432107 "Lizarrako Ostalaritza Elkartea. Erdi Aroko Astea sustatzeko eta bertan jarduerak eta inbertsioak egiteko hitzarmena"	20.000
A20001 A2100 7609 337120 "Transferentzia Milagroko Udalari: Peñón de los Moroseko aurrin eta sarbideen kontserbazio eta zaharbertzerako proiektua"	100.000
210001 21300 7609 261698 (E) "Transferentzia Milagroko Udalari: udal ur-kontsumoaren kontagailuak eta sektORIZAZIOA"	85.000
054001 02500 4809 134100 "Laguntza bereziak tokiko agintariei ondasunetako kalteengatik larrialdietan"	200.000
210001 21300 7609 261686 "Armañantzasko Udala. Kontsultategi mediko zaharra egokitzea alokairuko etxebizitza izateko; Plaza kalea, 10"	15.000
GUZTIRA	9.788.715,24

**2. artikulua.** Aparteko kredituaren finantzaketa.

9.788.715,24 euroko kreditu berezi hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatzeko da:

Aurrekontu-partida	ZENBATEKOA
330000-33100-4400-921102 "(E) NASUVINSA-LURSARErako transferentzia: lurraldeko proiektu estrategikoen garapena"	174.000,00
330000-33100-7400-921103 "NASUVINSArako transferentzia-Jarduera ekonomiko berrietarako azpiegituren garapena, Pirinioetako Plana"	140.000,00
220003-22200-2090-453200 partida, "Iruña-Logroño A-12 autobiare kanona"	188.000,00
210001-21300-7609-2616B0 "(E) Erronkariko Udalarekiko Hitzarmena: eskola zaharrak egokitzea"	75.000.00
210001-21300-7609-452302 "Lesakako Udala. Lesaka-Eurovelo 0,90 kp-an zeharkako drainatze-kanalizazio berria"	100.000.00
113002-12000-8700-000003 "Toki ogasunen parte-hartze funtsari atxikitako diruzaintza gerakina"	8.000.000,00
A50000-A5000-7609-336100 "(E) Fiteroko Udalarentzako dirulaguntza, udal kiroldegiko ekipamendurako"	7.000.00
A00000-A0000-7609-331100 "(E) Eloko Udalarentzako dirulaguntza, Erdi Aroko Zubialdea zubia eta Txirria birgaitzeko"	46.996.00
A20002-A2500-4609-334108 "(E) Tafallako Udalarentzako dirulaguntza: Jotaren interpretazio zentroa"	25.000.00
A20001-A2100-2268-334100 "(E) "Navarro Villoslada" literatura sariketa, gaztelaniaz eta euskaraz"	20.000.00
A20003-A2300-4816-333107 (E) "Dantzaz Elkartearikiko hitzarmena"	10.000.00
A20001-A2100-4609-337102 "(E) Luzaideko Udalarekiko hitzarmena, "Populus Vasconiae eskultura multzoa egiteko eta haren inaugurazio ekitaldietarako"	10.000.00
A20002-A2500-4816-334107 "(E) Nafarroako Antzerki Eskolarako dirulaguntza"	40.000.00
A20001-A2100-2276-337107 "(E) Aralarko San Migeleko ostatua eta aterpetxea birgaitzeko azterketa/proiektua"	100.000.00
210001 21100 4609 922103 "Erronka Demografikorako Funtsa Lantokiko prestakuntza. Arrunta"	195.934.30
210001 21100 7609 922100 "Erronka Demografikorako Funtsa Lantokiko prestakuntza. Inbertsioa"	236.784.94
830001 83100 4819 432106 (E) "Lizarrako Merkatarien Elkartea. Erdi Aroko Astea sustatzeko eta bertan jarduerak eta inbertsioak egiteko hitzarmena"	20.000
A20001 A2100 7609 337111 (E) "Transferentzia Milagroko Udalarari: Peñón de los Moroseko aurrien kontserbazio eta zaharberritzerako proiektua"	100.000
210001 21300 7609 261698 (E) "Transferentzia Milagroko Udalarari: udal ur-kontsumoaren kontagailuak"	85.000
220003-22200-2090-453200 "Iruña-Logroño A-12 autobiare kanona"	200.000
210001 21300 7609 261611 (E) "Transferentzia Armañantzasko Udalarari: udal ostatua eraikitzea"	15.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.788.715,24</b>

### 3. artikulua.

1. Toki erakundeen energia-kostuen igoerari aurre egiteko funts berezia, izaeraz Toki-entitate-ek Nafarroako Tributueta Parte hartzeko Funtsari eginiko ekarpena izanen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123.10 artikulua xedatuari jarraikiz.

2. Funts bereziaren onuradun izanen dira 2022ko ekitaldian, 2021eko ekitaldiarekin alderatuta, energia-kostuen igoera izan duten Nafarroako udalerrri eta kontzejuak.

3. Funts berezia banatuko da honako honen proportzioan: 2022ko ekitaldian, 2021eko ekitaldiarekin alderatuta, toki entitate onuradun bakoitzak energia elektrikoaren, gasaren, erregaien eta karburanteen kontsumoaren kostu garbi orokorra, toki entitateen multzoaren igoera ponderatu osoaren gainean. Toki entitate bakoitzak jasoko duen gehieneko zenbatekoa izanen da jasan duen kostu garbi orokorraren igoera.

Toki entitate bakoitzaren kostu garbi orokorraren kostuan sartuko da, ekitaldi bakoitzerako, energia elektrikoaren, gasaren, erregaien eta karburanteen kontsumoagatik aitortutako obligazio garbi guztien batura, ken entitateak energia salzteagatik eskuratutako diru-sarrerak, bai eta beste diru-sarrera batzuk ere, tokiko ondasun eta zerbitzuak erabili eta baliatzetik eratorritako energia-kontsumoa hirugarrenei zuzenean jasanaraztetik sortuak.

Banaketarako, kostu garbi orokorraren igoera da 2022ko ekitaldiko kostu garbi orokorraren eta 2021eko zenbatekoaren arteko aldea, horri kenduta 2022ko ekitaldian jasotako zenbatekoa, Nafarroako toki entitateetan Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoak arintzeko maiatzaren 12ko 13/2022 Foru Legearen bidez onetsitako funts berezitik iritsia.

Ateratzen den kostu garbi orokorraren igoera ponderatuko da Nafarroako udalerrri guztien batez besteko per capita diru-sarreraren eta udalerrri bakoitzaren per capita diru-sarreraren artekoa, zeinak definitzen baitira Toki entitateek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legearen 6. artikuluko 3. apartatuan, 2022ko ekitaldiko banaketarako lortuak. Kontzeju onuradunen igoera ponderatzeko dagokien udalerrriaren datua hartuko da.

Aipatu kostuan sartuko da toki entitatearena berarena, haren erakunde autonomoena, enpresa-entitate publikoena eta merkataritzako elkarteena, horien kapitala oso-osorik toki entitatearena

bada, eta tokiko fundazio publikoena, horien kapitala oso-osorik toki entitatearena bada.

Energia-kontsumoaren kostua sartuko da jasandako BEZa, kengarria ez bada. Bestela, aipatu BEZa ez da sartuko. Tratamendu bera emanen zaie artikuluko honen bigarren paragrafoaren arabera lortutako diru-sarrerei.

4. Toki entitate onuradun bakoitzak, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik gehienez ere bi hilabeteko epean, igorri beharko du aurreko apartatuan deskribatutako kostu garbi orokorraren igoera egiaztatzen duen ziurtagiria, legearen eranskin bakarrean datorren ereduarekin bat.

Aipatu ziurtagiria bakarra izanen da toki entitate bakoitzeko, eta hura osatzen duten entitate guztien informazioa bilduko du.

Ziurtagiria telematikoki aurkeztuko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, toki administrazioaren arloko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzak Ekonomikorako Zerbitzura igorrita.

5. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez likidatu eta ordaindu egingen dira toki entitate onuradun bakoitzak jaso beharreko zenbatekoak, aurreko apartatueta ezarritakoa aplikatzearen ondoriozkoak.

6. Toki entitate onuradunek toki administrazioaren arloko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiari eman beharko diote horrek egokitzat jotzen duen informazio oro.

**Azken xedapenetan lehena.** Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, hamabigarrena. Testu hau izanen du:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Historia Sozial Bateratua eta datuen tratamendua.

1. Nafarroako Historia Sozial Bateratua da Nafarroako herritarren informazio sozial guztia biltzen dituen, laguntza egokia bermatze aldera Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 9. artikuluan arautzen den gizarte zerbitzuen sistemaren erabilzaileei. Horretarako, gizarte zerbitzuen sisteman pertsona baten eta/edo haren familia-unitatearen edo bizikidetzak-unitatearen datuen gaineko balorazioa,

diagnostikoa, esku-hartze plana, ebaluazioa, kudeaketa, kreditazioa, ikuskapena eta ustiaketa estatistikoa egiten parte hartzen duten profesionalak sarbidea izan beharko dute esku-hartzean ukitutako pertsonen Nafarroako historia sozial bateratura.

2. Gizarte zerbitzu publikoen sistemako profesionalak Nafarroako Historia Sozial Bateratuan eskura edukiko duten informazioa mugatuko da esleituta dituzten lan eta eginkizunetara. Hartara, segurtasunaren aldetik behar diren neurri teknologikoak aplikatuko dira. Halaber, Nafarroako historia sozial bateraturako sarbideak zein bertan kontsultatutako informazioa erregistratu egingen dira eta auditoria eta kontrola izanen dute, bermatze aldera ezarritako printzipioak betetzen direla eta egoki baliatzen direla gizarte zerbitzuen sistema publikoan arreta jasotzen duten pertsonen datuen babeserako eskubideak.

3. Ditutzen eskumenen erabilera-esparruan Nafarroako historia sozial bateratuko edozein datu pertsonal eskuratzen duten langileek datu horiek isilpean edukitzeko betebeharra izanen dute.

4. Pertsona bat gizarte zerbitzuen sistema sistema publikora gehitzeak ekarriko du haren datuak tratatzea datuen babesari buruzko legerian ezarritako baldintzetan. Gizarte zerbitzuen sistema publikoan arreta hartzen duen pertsonaren

gaineko informazioa erregistratzeko eta kontsultatuzeko bertako profesionalak ez dute eskuratu beharko pertsona horren alde aurreko baimena, ezta haren familia-unitatea edo bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsonena ere, datu tratamendu hori sartuta dagoelako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, pertsona fisikoen babesa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez arautzen duen horretan, 6.1.e) eta 9.2.h) artikuluetan, aipatzen diren tratamenduen artean.

5. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren erabiltzaileei laguntza egokia emateko behar den informazioa, jadanik administrazio publikoren baten eskuetan badago, ahal den guztietan kontsultatuko da datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako gaitutako bete sistema elektronikoko batzuen bidez.

6. Herritarrek beren Nafarroako Historia Sozial Bateratua Nafarroako Gobernuaren web orrian kontsultatu ahal dute”.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## ERANSKINA

## ZIURTAGIRI EREDUA

..... jaunak/andreak, .....(e)ko idazkariak

## ZIURTATZEN DUT

Nire ardurapeko idazkaritzan dauden datuetatik ondorioztatzen dela ezen, Nafarroako toki entitateen energia-gastuaren igoera konpentsatzeko funts berezia arautzen duen Foru Legean xedatutako ondorioetarako, .....(e)ko Udalak/Kontzejuak 2022ko ekitaldian, 2021eko ekitaldiarekin alderatuta, izan duen kostu garbi orokorraren igoera ..... izan dela €

Igoeraren xehetasuna honako hau da:

2022ko EKITALDIA	ENTITATE NAGUSIA (zehaztu)	ERAKUNDE AUTONOMOA (zehaztu)	MERKATARITZA-SOZIJETATEA % 100 (zehaztu)	FUNDAZIOA % 100 (zehaztu)	GUZTIRA
Aitortutako obligazioak, energia elektrikoaren, gasaren, erregaien eta karburanteen kontsumoagatik aitortuta (a)					
Energia saltzetik eta energia-kontsumoa hirugarrenei zuzenean jasanaraztetik sortutako diru-sarrerak (b)					
<b>2022ko KONTSUMOAREN KOSTU GARBIA (c) = (a+b)</b>					

2021ko EKITALDIA	ENTITATE NAGUSIA (zehaztu)	ERAKUNDE AUTONOMOA (zehaztu)	MERKATARITZA-SOZIJETATEA % 100 (zehaztu)	FUNDAZIOA % 100 (zehaztu)	GUZTIRA
Aitortutako obligazioak, energia elektrikoaren, gasaren, erregaien eta karburanteen kontsumoagatik aitortuta (d)					
Energia saltzetik eta energia-kontsumoa hirugarrenei zuzenean jasanaraztetik sortutako diru-sarrerak (e)					
<b>2021eko KONTSUMOAREN KOSTU GARBIA (f) = (d+e)</b>					

<b>UKRAINAKO GERRAREN INPAKTUA FUNTS BEREZIAREN EKARPENA (13/2022 FORU LEGEA) (g)</b>	
---	--

<b>KOSTU GARBI OROKORRA (c-f-g)</b>	
-------------------------------------	--

*Oharra: Toki entitatearenak osorik diren entitate guzti-guztiak sartu behar dira.*

Eta jasota gelditu nahiz ondorio egokiak izateko, ziurtagiri hau egiten dut.

(e)n, 2023ko

aren

(e)(a)n

Alkatea

Idazkaria

